ARGIA

YLENIA BENITOK BRONTË LIBURU-DENDA ITXI BEHAR IZAN DU

“Liburu-denda txikiak katean azkenak gara liburuaren industriarentzat”

44-47.orriak

#2.698 | 2020 / 09 / 06 | 3,90 €

Gasteizko Alde Zaharra, turismoaren jomuga berria

22 I TURISMOA

Joseba Elosegi, 50 urte Francori Gernikako sua erakutsi ziola

30 I HISTORIA

Euskararen historia 'euskargazkietan' bildua

32 I EKAITZ SANTAZILIA

02698
9 771988 139093

Aktualitatearen

gakoak

5€

Udan patxadaz gozatzeko

Erosi ARGIAren Azokan

AZOKA.ARGIA.EUS · AZOKA@ARGIA.EUS · 943 37 15 45

ARGIA

ARGIA

2.698 zenbakia I Irailak 6, 2020

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
08 I EKONOMIAREN TALAIAN
09 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
09 I EZ HANKA EZ BURU

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

17 I MIKEL ZURBANO
18 I JUNE FERNÁNDEZ
19 I MIKEL IRIZAR
19 I LEIRE NARBAIZA
20 I MIKEL BASABE

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

36 I DENBORAREN MAKINA
37 I ARGIA KOMUNITATEA
38 I BIZI BARATZEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: MADDI ANE TXOPERENA
54 I BERANDUEGI

DOS POR DOS

22 I **GASTEIZKO ALDE ZAHARRA TURISTIFIKATUZ HUSTUTZEKO ARRISKUAN**
Gasteizko Alde Zaharreko bizilagun komunitateak idatzitako erreportajeak azaltzen du hiriko bihotzaren egungo egoera zein den: eraikinen ia erdiak premiaz esku-hartzea behar du berritzeko, eta etxebizitzen laurdena hutsik dago. Udalak ez ote dio Arabatur lobbyari men egingo, pisuak herritarrez hustu eta turistaz betez?

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Gisèle Halimi, Burgosko auzira lekuko ekarri genuen abokatu menderakaitz hura
Pello Zubiria Kamino

12 I MARIBEL SERVERA
“Glosadore batek beti mugarantz egin behar du, baina muga pasaz gero, galdu du”
Miren Artetxe Sarasola

28 I RUTH WILSON GILMORE
“Espetxeen abolizioaren alde”
A. Goodman - J. González / Democracy Now

30 I HISTORIA
Joseba Elosegi, 50 urte sua piztu zuela
Urko Apaolaza Avila

32 I EUSKARA I EKAITZ SANTAZILIA
“Hilerriak oso interesgarriak dira leku baten historiaz jabetzeko”
Miel A. Elustondo

40 I KULTURA I ÉRIC VUILLARD
“Beti hartu behar da serio bere ideiengatik hiltzen den norbait”
Enric Bonet / El Salto

44 I KULTURA I YLENIA BENITO
“Liburuaren industriak ez du irakurleengan pentsatzen”
Mikel Garcia Idiakez

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE GARA

ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Eizagirre, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuek lizentzia hau ez izatea.

Mugak Zabalduz

Duela 10 urte Guatemala, Honduras, Brasil eta beste zenbait herrialdetako 72 migratzaile hil zituzten torturatuta Mexikoko San Fernandon. Euskal Herrian errefuxiatuen Europako Karabanak gogoan izan ditu igandean, bortxaz desagerrarazitakoen nazioarteko egunean. Munduko mugalde eta itsaso askok ezleku izaten jarraitzen dutelako bizitza hobe baten xerka sorterria utzi behar izan dutenentzat. Irudian: Banksy-ren margo eta diruak ezagun egindako Louise Michel (XIX. mendeko anarkista eta feminista frantsesaren omenez) itsasontzia, egunotan 219 lagun Mediterraneoko uretatik atera dituena.

LOUISE MICHEL AXIER LOPEZ

IKASLEEN RATIOA JAUSTEA GOMENDATZEN DEN ARREN, RATIO ALTUAK ATXIKITZEN TEMATU DIRELA IKUSITA, POSIBLE LITZATEKE ARDURADUN NAGUSIA, NAFARROAN GIMENO JAUNA ALEGIA, SALATZEA ETA EPAITEGIETARA ERAMATEA? ZER GERTATU BEHARKO LITZATEKE?

@Alferrikaldua

EZTABAIDAGARRIA IRUDITZEN ZAIGU MASKARA DERRIGORREZKOA IZATEA LH1ETIK AURRERA, OSASUNAREN MUNDU ERAKUNDEAK KONTRAKOA ESAN DUENEAN

@KoldoTellitu

EUSKARA GAITASUNARI DAGOKIONEZ IKASLERIK ATZEAN EZ UZTEKO, EZINBESTEKOA DA ESKOLARATZE BERRI HONETAN HIZKUNTZA ARDATZ IZATEA

Kontseilua

PANDEMIA EXISTITUKO EZ BALITZ LEZ JARRAITUKO DA EDUKIEKIN (MARTXOTIK EKAINERA EZ ZEN MODURIK IZAN) EDO BESTELAKO LEHENTASUNAK EZARRIKO DIRA, EZ BAKARRIK DISKURTSOAN, EZPADA, IKASTETAN?

@Uiturriaga

MONCLOA.COM

Agintariek ez dute ikasgela zapaldu

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Uda luze honetan ez dute ikasgelarik zapaldu gure agintariek, hezkuntza eragileekin biltzeko beharrik behintzat ez dute ikusi, eta ikasturte berria gainean dugula iragarri dituzte planak, ez oso irudimentsuak egia esan: maskara denentzat uneoro eta gel hidroalkoholikoa litroka. Entzungor egin diete, berriz ere, hezkuntza eragileen eskaerei: ikasle taldeak nabarmen txikitzea –horretarako behar diren langileak kontratatuz– eta ikastetxeko edo inguruko espazioak egokitzea –ahal den neurrian kanpoan, bestela espazio zabal eta ongi aireztatuak baliatuz–.

Ratioak txikitu eta espazioak behar bezala egokitzeko, aurreikuspen eta inbertsio handiagoak behar ditu hezkuntzak, eta ez dugu halakorik ikusi aspaldian. Kontratazio berriak agindu dituzte Jaurlaritzak (1.000 irakasle gehiago) eta Nafarroako Gobernuak (666 gehiago) baina ratioak jaitsi ez badira, alegia irakasle bakoitzeko ikasle taldeak txikitu ez badira, eta kontratazio zerrendak itxita badaude, noiz eta zertarako izango dira kontratazio horiek? Jaurlaritzak ekainean egin zituen murrizketak estaltzera al datoz 1.000 irakasleak? Seaskan ere, garbi adierazi dute: ratioak txikitzeko aukerarik ez daukate, esleitutako irakasle kopuruarekin.

Espazioaren garrantzia ere jakina da: leku zabalak behar dira, ahal dela kanpoan –kutsatzeko arriskua nabarmen txikitzen baita aire zabalean– eta nazioarteko hainbat txokotan ikusten ari gara ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak aztertzen ari direla, baita ikastetxe inguruak ere, gune ireki eta zabalak antolatzeko –tartean arkitektoen laguntzarekin–. Horretarako deia ere egin dute Euskal Herrian, baina instituzioek bestelako bidea hautatu dute: musukoa guztientzat. 6 urteko haurrek egun osoan musukoa jantzita eramatea da osasuntsuena? Abuztuaren azken astean (!), Jaurlaritzak EAEko udalerriei eskatu die irakaskuntzarako egokiak izan daitezkeen udal-espazio publikoak identifikatzeko, bestelako zehaztasunik gabe.

JANTOKIA? ERREFORTZUAK? GARBIKETA?

Ikasturte atarian, galdera ugari daude airean: errefortzu berezia ezinbestekoa izango da –aurreko ikasturtearen ondorioak samurtzeko, utzitako hizkuntza eta hezkuntza arrakalak gainditzeko, premia bereziko ikasleei laguntzeko–, baina zein baliabide eta zenbat jarriko dira horretarako? Ikasle andana hartzen dituzten jangelen protokoloaz ba al dakigu zerbait? Eta eskolaz kanpoko jarduerez? Garbiketarako langile gehiago kontratatuko al da? Eta ikasgelaren batek etxetik aritu behar badu, zein da asmoa? Aurreko aldiko akats berdinak errepikatuko al ditugu? Curriculuma eta beharrak ez al dira aldatuko? Kontziliazioa hankaz gora utziko al da berriz?

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Inoizko udarik ederrena

ARITZ GALARRAGA

Orain arteko udarik ederrena izan zen Galizian eman genuen hura, Burela, Esteiro, Oimbra, batez ere Oimbra –gogoangarriena ere bai, bidaiaren erdian Rafael Chirbesen heriotzaren berriak kolpatu gintuen eta–. Urtetik urtera saiatu izan naiz gero –saiatu, ohikoa dudan intentsitate txikiarekin, noski– uda hura hobetzen, sikiera berdintzen; baina ez dut sekula lortu. Orain arte. Auskalo bost hilabetean etxetik ia atera gabe egon garelako edo, baina a ze abuztua, lagunok, a ze abuztua. Ibili gara zaldiz, promenatu gara mendi-bideetan, freskatu gara itsaso, erreka, igerilekuetan. Ikusi dugu Vincent Cassel herriko taberna batean. Eta irakurri dugu *Un été avec Pascal*.

Pascal, a ze tipoa, arduratuegi nabaritu dut jendea katolikotzeko ahaleginean. Gogoan gordetzeko kontu batzuk, halere. Hogeita hemeretzi urterekin hil zen. Marxistek beti errespetatu izan dute. Hitz hanpatuak gorroto zituen, espezialisten pedantismoa, jakinduriak ez zuela umiltasuna ziurtatzen zioen. Eta pandemia garaiotarako sententzia ahaztezin hau: norbere gelan lasaiki egoten ez jakitetik datorkeela gizakiaren malura. O, bai, zeinen gauza ona litzatekeen erretiratu, gelditu, deskantsatu ahal izatea. Antzinako jakitatearen ideala omen, dio Antoine Compagnonek. Baina ez ote da nahikoa oporraldi bat, laburra, adibidez udakoa, uda ofizialekoa, ez ote da nahikoa abuztu bat areagotzeko gizakiaren buruko mina eta deserrotzea? Ezen, pausatzen garen unetik beretik, aurre egin behar izaten baitiogu gure izateari.

Abuztu honetan, beraz, ibili gara zaldiz, promenatu mendi-bideetan, freskatu itsaso, erreka, igerilekuetan. Ikusi dugu Vincent Cassel herriko taberna batean. Eta, kontxo, Pascal ere irakurri dugu. Izango da halere burmuina gutxien erabili dudan uda? Izango da burmuina gutxien erabili dudan uda. Inoizko udarik onena. Hurrengo udara arte, besterik ez bada. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"TUTERAKO HILTEGIAREN LAN BALDINTZAK EGOKIAK DIRA BIRUSAREN HEDAPENERAKO"

ELA SINDIKATUA

Tuterako Uvesa enpresan 197 langilek positibo eman du koronabirusa atzemateko testean, 713 langileko enpresan. Sindikatuak aspaldi ari ziren salatzen enpresan ez zirela behar adina babes neurri. "Hiltegiaren lan baldintzen ezaugarriek eta bertako tenperaturek baldintza egokiak sortzen dituzte birusaren hedapenerako", adierazi du ELAk. Pozik hartu dute aldi baterako enpresa ixtea. "Enpresek jakin behar dute langileen artean kutsatze-arriskuak murrizteko inbertitzea dela aukerarik errentagarriena". **2020/08/28**

EKONOMIAREN TALAIAN

Inbertsioa lehen mailako osasun arretan

JUAN MARI ARREGI

Vox populi da COVID-19aren pandemiak agerian utzi dituela, besteak beste, gure osasun publikoaren defizitak, "Europako onena" izateaz beti harrotu baitira hemengo agintariak. Horren barruan, lehen mailako arretari erreparatu beharko genioke. Osasun publikoko profesionalak eta langileak pandemiaren aurretik ari ziren ohartarazten –are gehiago orain– lehen mailako arreta agonia jasaten ari dela, dagoeneko kolapsatuta baitago.

Zerbitzu horren edozein erabiltzailek ikus dezake zein zaila den aurrez aurreko kontsulta bat lortzea. Askok, pandemia hasi aurretik ere, hilabeteak zeramatzaten ohiko medikurik gabe, erretiroa hartu duelako eta ez dutelako ordezkatu. Eta lan hori beste mediku batzuek egin behar dute, ohiko medikua ez izan arren. Nire kasuan, medikuak erretiroa hartu zuen abenduan, eta bederatzi hilabete geroago ez dute oraindik ordezkatu.

Anbulatorioetan geratzen direnak, berriz, ez dute betarik lehen mailako arretan aritzeko, asko birusaren arakatzaile lanetan jarri dituztelako. Arakatzaile horiek ez dira kontratazio berrien bidez elikatzen, nahiz eta horrek osasun -sistema indartzea ekar zezakeen.

Beharrezkoa da administrazio publikoak aukeratzea zein inbertsio egin, eta norabide horretan, osasun sistema izatea herrialde honen gehiengoaren zerbitzura lehentasuna izango duena. Lantaldeak egonkortu eta handitu behar dira (medikuak, erizainak, laguntzaileak, garbiketako langileak...), baita osasun sistemako instalazioak hobetu ere, batez ere lehen mailako arreta. Beste inbertsio batzuk atzeratzea eta "Euskal Y" bezalako gastu faraoniko eta antisozialak alde batera uztea ezinbestekoa da horretarako; diru hori osasun publikora bideratzea lehentasunezko helburu politikoa izan beharko litzateke. ●

ANALISIA

Non da Mikel? filmeko eszena bat.

Euskal gatazka Zinemaldian: mundu oso bat dago *Patria*-tik harago

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Udako oporren aurretik irakurri genuen notizia batek pentsarazten zuen aurtengo Donostiako Zinemaldian alfonbra gorria jarriko ziotela euskal gatazkari buruzko narratiba jakin bati, Espainiako Estatua azken urteetan eraikitzen ari den kontakizun ofizialari. Izan ere, Donostian estreinatuko diren lanen artean *Patria* telesaila dago, Fernando Arambururen izen bereko nobelan oinarritutako HBOren seriea, ordubeteko zortzi kapituluz osatua eta, pandemiagatik izan ez balitz, aurtengo maiatzean jada pantailetan izango zena.

ETAren sorreratik 2011ra bitartean Euskal Herrian gertatutako guztiari buruzko "egia" ezartzeko dispositibo gisa funtzionatu du nobelak eta sekulako arrakasta editoriala izan da, haren kalitate literarioa gorabehera. Eta telesailari ere ikusmin handia fabrikatu diotenez, aurtengo festibalean "euskal gauza"-ri buruzko alde bakarreko ikuspegia ikus-entzuteko prestatzen ari nintzen, joan den astean hemengo zinegileek festibalera zer eramango duten ikusi nuen arte.

Ez dakit Zinemaldiak konpentsazio-lege modukoren bat aplikatu duen aurtengo aukeraketan ala –posibleagoa dena–, Euskal Herrian ere geroz eta ohikoagoa bihurtzen ari den gure iragan hurbilari begiratzen dioten istorioak filmatzea, denborak ematen duen distantziari esker. Kontua da, festibaleko hainbat sailetan agertzen direla zuzenean edo zeharka euskal gatazkarekin lotura duten pelikulak: Mikel Zabalza Guardia Zibilak nola hil zuen kontatuko du *Non dago Mikel?* dokumentalak (Amaia Merino eta Miguel Ángel Llamasek zuzendua); Alfonso Etxegarairen deportazio luzearen amaiera pantailaratuko du *Caminho longe*-k (Josu Martínez, Txaber Larreategi); Aitziber Olaskoagaren *Jo ta ke* filmak identitate nazionalaren eraikuntzaz hitz egingo du, Herrera de la Manchako kartzela atze-oihal gisa jarrita; eta ekoizpen fasean den Arantza Santestebanen *918 gau* ere ikusi ahalko da, egileak berak kartzelan pasatako egunez eta espetxeko bizimodua filmetan islatzeko moduaz hausnartzeko parada eskainiko duen lana.

Bai, deskonpentsazioa nabarmena da hala ere: ekoizpen txikiok nekez egingo diote aurre *streaming* plataforma multinazional baten indarrari eta kontakizun bat inposatzeko estatu-egituren apustuari; baina puntu batetik aurrera, ikusleen erantzukizunaz hitz egiten ere hasi beharko ginateke: euskal gatazkari buruzko bestelako filmak nahi dituztenek –bai zinematografikoki, bai ideologikoki–, aurtengo Zinemaldian badute non aukeratu. Hortik aurrera, zerbait desberdina nahi dutenen ardura da horiek ikusten saiatzea, hizketa-gaia ez dezan ekoizpen bakarrak monopolizatu. ●

TWITTER

ETXEBARRIA FUTBOLARIA ETA ALTSASUKO KAMISETA

GRANADA. Granada C.F. futbol taldeak Unai Etxebarria atezain euskalduna kanporatu du. VOX alderdiak hala eskatu zuen, futbolariaren irudi bat zabaldu zenetik Altsasuko gazteen aldeko kamiseta soinean zuela. Etxebarria Granadaren ospakizunetan izan zen Europako txapelketarako sailkatu zenean, "Altsasukoak aske" dioen kamiseta ezagunarekin.

MUGIKORTASUNA
10 milioi

bidaiarik gaueko trenak aukeratuko lituzkete Frantziako Estatuan, hegazkinen edo errepideen ordez. Gaueko trena hegazkina ordezkatzeko "tresna paregabea" dela diote. 30 trenez osaturiko sare bat prestatu nahi du 2030erako Frantziako Estatuak, 600 eta 1.500 kilometro arteko distantzietan garraioa deskarbonizatzeko atea zabalduz.



Sutea Portugaleteko Sastraka gaztetxean

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Abuztuaren 24 gauez piztu zen sutea, barruan inor ez zegoela. Gaztetxeko kideek adierazi dutenez, sua eragindakoa izan da.

UZTAILETIK OKUPATUA

Sastraka hutsik geratu zen 21:30ak aldera, eta ordu laurden baten buruan sutea antzeman zen eraikinaren fatxadan eta teilatuan. Barruan ez zegoen inor sua piztu zen unean, eta zauriturik ez zuen utzi suak. Suhiltzaileen esku-hartzea beharrezkoa izan zen sua itzaltzeko. Sastraka gaztetxea uztailean okupatu zuten, zortzi urtez hutsik egon ostean. Iraganean El Carmen ikastetxea izan zen, eta Eusko Jaurlaritzak ondare izendatua da.

"INTENTZIO TXARREZ SORTUA"

"Ez daukagu zalantza izpirik sutea kanpoko baten batek intentzio txarrez eragindakoa izan dela", azaldu dute gaztetxeko iturriek. Hipotesi hori indartzera datoz eraikinaren barrualdean aurkitutako pintaketak: "Gora Ortuzar" eta "Urkullu Dios" zioten. Abuztuaren 26an, "Ez dago sastraka guztiak erreko dituen sugarrik!" lelopean, ehunka lagunek Portugaleteko kaleak zeharkatu zituzten, gune autogestionatuaren defentsan.

BLACK LIVES MATTER. Poliziak herritar beltz bati tiro egiteak hautsak harrotu ditu berriz ere AEBetan. Gutxienez zazpi tiro eman zizkion bizkarrean Jacob Blake 29 urteko herritarrari, autora sartzeko unean. Protestak biderkatu egin dira Wisconsinen, hildako eta zauritu gehiago eraginez.

EUSKAL PRESOAK. Iñaki Alonso euskal presoa libre irten da Kordobako espetxetik, 25 urteko zigorra beteta. Bestalde, aurrez aurreko bisitak debekatu ditu Espainiako Espetxe Instituzio Idazkaritza Nagusiak zazpi erkidegotan, tartean Euskal Herriko espetxeetan.

EKIALDE HURBILA. Israelek bidalitako bonben pean dira Gazako palestinarrak abuztuaren 6az geroztik eta horrek horrela segituko duela jakinarazi zuen Israelgo Gobernuak abuztuaren 25ean; guztia, nazioartearen isiltasun konplizeak lagundurik.

GISÈLE HALIMI, BURGOSKO AUZIRA LEKUKO EKARRI GENUEN ABOKATU MENDERAKAITZ HURA

Duela mende erdi, 1970eko abenduan, Burgosko Auziak sekulako indarra eman zion Euskal Herriaren alde eta Francoren diktaduraren kontra ETAk piztutako borrokari. Europako agenda politikoan sartu zuen euskal auzia, tartean uztailaren 28an 93 urterekin hil den Gisèle Halimi abokatuaren lanari esker. Aitzindaria izan da defenditzen Magrebeko askapen gerran eroritakoak, kolonialistek torturatuak, abortua egindako emakume kriminalizatuak…

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Iñaki Egañak *Gara*-n gogora ekarri du nola Miguel Castells abokatuak deituta azaldu zen Burgosen 1970eko abendu ilun hartan Gisèle Halimi, han militarrek epaitu behar zituzten ETAko militante gazteen auzian. Giza Eskubideen Frantziako Ligaren behatzaile lanak egingo zituen Halimik, legelari europar batentzako hain osagai bitxi bezain eskandalagarriz betetako epaiketan, zeinaren amaieran jujatutako hamasei gazteen artean banatuko baitzituzten sei heriotza-zigor –nazioarteko presioak ezabatzea lortuko zituenak– eta urte luzeetarako kartzelaldizko kondenak.

Miguel Castellsek ARGIAn kontatu zuen Halimiri zein bitxia egiten zitzaizkion Espainiako justiziaren manera zaharkituak: "Burgosko auzira etorri zenean, algaraka hasten zen Gisèle Halimi abokatu frantsesa '*con la venia, Señor presidente*' entzuten zuenean, Felipe II.aren garaian bageunde bezala ari ginela zioen". Baina broma gutxi Burgosen *justizia militarra* ezarri behar zutenekin. Epaituetako batek, Xabier Larenak, kontatua du epai-mahaiaren burua zen Ordovás zalditeriako koronelak bere pena ahots ozenez haizatzen zuela zaldietako bat gaixorik zeukalako. Hurbil zeukan Halimik aurre egin omen zion: "Zure eskuetan dago sei pertsonari bizia kentzea eta zure zaldiez zaude kezkatan!".

Burgosen ikusi eta ikasitakoekin idatziko zuen Halimik *Le Procès de Burgos*, frantsesez Gallimardek argitaratuko zuena eta espainolez Venezuelako Monte Avila argitaletxeak. Jean-Paul Sartrek egin zion Europako ezkerrean sona handia edukiko zuen hitzaurrea; *Armiarma* webean irakur daiteke Markos Zapiainek itzulirik. Gisèle Halimiren kronika xehean bilduta geratu zen nola amaitu zen auzia, epaile militarrak presoei azken hitza esatea ukatuta, Mario Onandiak "Gora Euskadi Askatuta!" oihu egin eta auzipetuak hasi zirela *Eusko Gudariak* kantatzen: "Zutitu eta ukabila jasorik hasi dira askatasunari kantari. Panikoa auzitegian! Epaileek beren ezpatak atera dituzte, guardiek beren pistolak…" Epaiketa amaituta berehala, poliziak atxilotu eta Espainiatik kanpo eman zuen behatzailea.

Euskaldun ekintzaileen abokatuek bazekiten nori eskatzen zioten laguntza. Gisèle Halimi Europan ezaguna zen 1960an defenditu zuenetik Djamila Boupacha 22 urteko militante aljeriarra, soldadu frantsesek Aljerren atxilotu, bortxatu eta torturatu ostean heriotza zigorra arriskatzen zuena. Halimik Boupacharen sostengu taldera bildu zituen Jean Paul Sartre, Simone de Beauvoir eta puntako beste hainbat intelektual. Ez zuen lortu epaiketa irabaztea; heriotza zigorra ezarri zioten gazteari baina presidentearen indultoz salbatu eta Evianeko akordioen ostean aterako zen espetxetik. Kasuaz Halimik idatzitako liburuaren azala Pablo Picassok marraztu zuen, Djamilari egindako erretratuarekin.

Aljerretik *Afrique-Asie* kazetak oroitarazi duenez, De Beauvoir eta Halimiren lanak metropoliko jendeen begien bistan utzi zuen Frantziak zein era basatian jokatzen zuen Aljerian, tortura eta hilketak naharo erabiliz eta horien arrasto guztiak ezkutaraziz. "Ez ziren nekatzen lanean. Justiziaren kateko arduradun bakoitzari idatzi zioten, militarretatik hasita De Gaulle jeneraleraino, denak bisitatu zituzten banan-banan, nahiz eta hauek gogo txarrez errezibitu. Eta lortu zuten epaituaren aldeko gutunak idaztea humanista handiek, idazleek, akademikoek, medikuek, baita frantsesek Aljerian torturatu eta asesinatutako Maurice Audin matematika irakaslearen alargunak ere, edo De Bollardière jeneralak, Aljeriako paratxutisten komandante izanik torturaren erabileragatik protesta egiteko dimisioa emana zuenak".

TORTURA, ABORTUA, BORTXAKETA

Zeiza Gisèle Elise Taïeb 1927an sortu zen Tunisen –orduan kolonia frantsesa zen– eta oso txikitatik harreman latzak izan zituen aita bereberrarekin eta ama juduarekin, biak ere txit tradizionalistak, *Laranjondoaren esnea* autobiografian kontatua duenez. Neska izateagatik diskriminatua, etxeko lanak egin eta anaien neskame izatera derrigortzen zuten, mutikoei nahi zutena egiten utziaz. Oldarkorra atera zitzaien, ordea, neskatoa: 11 urterekin gose greba egin zuen ere anaiek bezala ikasketak egin ahal izatea lortzeko. 16 urterekin familien

GISÈLE HALIMI (ABOKATUEN TOGA JANTZITA) ETA MARIE-CLAIRE CHEVALIER BOBIGNYKO AUZITEGI ATARIAN 1972AN. AUZI HONEN UBERAN IRITSIKO ZEN ABORTUAREN DESPENALIZAZIOA FRANTZIAKO ESTATURA. (ARGAZKIA: ELLE)

artean adostutako gizon batekin ezkonarazi nahi zuten arren, neskatoak lortu zuen horri uko egin eta Frantziara joatea zuzenbide ikasketak egitera. 1949an itzuliko zen Tunisera, abokatu titulua sakelean eta militante bilakatua.

Borroka antikolonialean ari ziren militanteen defentsaz gain –bere lanagatik atxilotu zuten paraxutistek, Aljeriatik kanporatu...– 1960ko hamarkadatik feminismoan asko inplikatua zen Gisèle Halimi, sarritan Simone de Beauvoirrekin elkarlanean. 1972an bulegoan laguntza eske azaldu zitzaizkion Mari-Claire Chevalier 16 urteko neska eta bere ama, langile komunista: alaba epaitu behar zuten abortatzeagatik eta ama hari lagundu izanagatik. Halimik *Bobignyko Auzia* erabili nahi izan zuen ama-alaben defenditzeko bezainbeste abortuaren despenalizazioan jurisprudentzia sortzeko. Hizlari bikaina, emakumeen zanpaketa klase borrokarekin lotuz bazterrak inarrosi zituen. Azken hitzartzean esan zion epaimahaiari: "Beti klase bera aurkitzen dugu zigortua, emakume txiro eta ekonomikoki bezala sozialki zaurgarriena. Hogei urte daramatzat abokatutzan, jaun-andereok, eta gauza bera galdetzen dut beti. Ez dut inoiz defenditu behar izan estatuaren goi-funtzionario baten emazterik, edo mediku famatu baten edo enpresaburu batenik, ezta horien maitalerik ere. Non dago, beraz, arazoa, auzitegi honetan ala beste nonbait? Beti zigortzen dituzue berdinak!".

Torturaz adina kezkatu zen betidanik bortxaketaz. Eta 1978an egokitu zitzaion Aix-en-Provencen bortxaketa delitua dela defenditzeko aukera. Mediterraneoko itsas bazterrean kanpin egiten zuten bi neska gazte belgikar bortxatuak zituzten hiru gizonek lau urte lehenago. Ez zen goxoki pasatu auzia, abokatuak eta akusatzaileek atarian zain zeuzkaten hainbat jende irainka eta bultzaka hartu zituztenak. "Bortxatzaileek argudiatu zuten –kontatu zuen abokatuak– bi neskek onartua zela. Eta lesbianak zirenez, bazirudien haien onerako eta dena izan behar zuela, 'horrela ikasiko dute'!". Baina auzia irabazi zuten eta bi urte beranduago Frantziako Estatuak legez ezarri zuen delitutzat bortxaketa.

Frakaso handi batek ematen zion pena Halimiri zahartuta ere, 2005ko elkarrizketa batean aitortu zuenez: Vilmorin hazi konpainia auzitara eraman zuen emazte ingeniari baten izenean, bere diploma eta curriculum berdintsuekin enpresak erabaki zuelako lehentasuna ematea gizon bati. Apelazio guztiak eginda ere, auzia galdu zuten. ●

Maribel Servera

GLOSARAKO JAIOA, BERAK HALA ERABAKITA

> GLOSADORE BATEK BETI MUGARANTZ EGIN BEHAR DU, BAINA MUGA PASAZ GERO, GALDU DU

Gorputz hezkuntzako irakasle ikasketak egin zituen lehenik (Universitat de les Illes Balears), eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietan graduatu zen gerora (Institut Nacional d'Educació Física de Catalunya). Gaztetxotatik boleibolera emana bizi zen –jokalari, entrenatzaile, arbitro…–, baina 29-30 urterekin glosarekin egin zuen tupust, eta liluraren liluraz baloiak eskuetatik alde egin zion. Gaur egun Lehen Hezkuntzako irakasle gisa egiten du lan, baina, batez ere, plazaz plazako glosaldiek bizi dute.

MIREN ARTETXE SARASOLA PAU RIERA

Zer gertatu zen ba glosa ezagutu zenuenean?

Ba, saio arrunt bat izan zen, baina, nire bizitza hankaz gora jarri zuen. Sant Antoni gaua zen, eta festa horietan, hemengo zenbait herritan, glosa oso bizirik dago, modu oso herrikoian. Alegia, glosak ez dituzte soilik oholtzara igotzen diren glosadoreek inprobisatzen: jendeak parte hartzen du, modu espontaneoan kuarteta bat edo beste kantatuz. Ez dira denak inprobisatuak, noski, herriko jendeak prestatuta ere ekarri ohi ditu han kantatzeko. Oso ohikoa dela esan dizut, baina, orduan oso bazterrekoa ere bai. Pentsa, nik ez nekien glosa bazenik ere! Eta han nengoen ni, eta ez nekien zer ari zen gertatzen. Ezin nuen sinetsi. Jende hura kantak asmatzen ari zen? Zirrargarria egin zitzaidan. Batek kuarteta bat aldamenetik, besteak handik erantzun... Eta estrofen egituran jarri nuen arreta. Han egon nintzen ordu erdiz nire buruan esaldiak bihurritzen, hitzak neurrira behartu eta nik ere bat kantatu nuen arte. Eta gero beste bat, ederki kostata, hura ere. Inork ez zidan esan bukaera pentsatu behar nuenik! Orduan, esan nahi nuen hura sartzen nuen nola hala moldean, eta gero zer esan jakin gabe gelditzen nintzen. Eta segi egin behar, errimatuz, gainera! Erabat harrapatu ninduen, ordea, ariketak berak, giroak, jendearen parte hartze hark...

Orduz geroztik, Mallorcara etortzen nintzen aldiro saioren batera joaten saiatzen nintzen, eta saio bakoitzeko hazi egiten zen nire kuriositatea. Zera baino astunagoa nintzen; han azaltzen nintzen antolatzen ziren guztietan. Hegaldi bat ere aldatu nuen behin. Larunbatean nintzen Mallorcara joatekoa asteburua ber-

Maribel Servera Matamalas

MANACOR, MALLORCA, 1981

Severeta glosadore ezaguna eta ezagutua da Mallorcan ez ezik Herrialde Katalanetan ere. Beste glosakide batzuekin batera –Mateu Matas *Xurí*, Pau Riera *Rierol*, Miquel Servera *Boireta*, Macià Ferrer *Noto* edo Catalina Eva Canyelles *Sollerica*, besteak beste–, Mallorcako ahozko inprobisazioa biziberritu duen belaunaldiko erreferentziazko kide da. Orain dela urte batzuk bertsolaritza ezagutzera Euskal Herrira etorri zenean ezagutu genuen elkar, Donostiako Rekalde tabernan. Eta oraingoan Mallorca barnealdean egin dugu topo, Sineu herriko igerilekuko ostatuan. Glosa-afaria hasi baino ordu pare bat lehenago elkartu gara, grabagailua eskuan. Galderak trumilka ditudala, nik. Egiteko denak banan-banan, berak. Eskuak airean dantzan, bai erantzun ere. Bukatu dugunerako hasierako agurra kantatzeko ordua da.

tan pasatzera, eta jakin nuenean ostiral iluntzean saio bat zegoela, hegaldia aldatu eta han agertu nintzen, ehun euro gehiago ordainduta.

Eta nola bihurtu zinen glosadore? Oharkabean izan zen, ala erabaki egin zenuen?

Oharkabean ez. Hamar urte dira orain glosadore izatea erabaki nuela. Sant Antoniko festa hartatik hiruzpalau urtera –2010ean– ni Bartzelonan nintzela Mallorcako glosadore batzuk etorri ziren hirira, eta Bartzelonako inprobisatzaileekin batera saio bat antolatu zuten. Han aditu nituen lehen aldiz Bartzelonako inprobisatzaileak, haien instrumentu eta guzti, eta saioa bukatu ondorenean inprobisatzen jarraitu zuten. Eta ni han, tarteka kantatzera ausartuz, etxerako batere gogorik gabe, ezin glosa gosea ase. Magikoa izan zen. Goizeko ordu txikitan etxera iritsi nintzenerako argi neukan: nik glosadore izan nahi nuen. Hura zen nirea. Behin izarartean ere ezin nion glosan pentsatzeari utzi, eta gogoan dut izugarri kosta zitzaidala gau hartan lokartzea. Geroztik ez diot inprobisatzeari utzi.

Zein zen glosaren egoera garai hartan?

Nik glosa ezagutu nuenean, bazegoen jende gazte mordoxka, glosaren inguruan ibiltzen zena eta inprobisatzen zuena. Baina, nahiko mugimendu berria zen. Bost-hamar urte atzera, adineko hiruzpalau glosadore baino ez ziren gelditzen. Oso noizean behin antolatzen zituzten saioak, entzuleak zaharrak izan ohi ziren, eta glosa bera ere aski kalitate txarrekoa. Umore astakirten samarra, gaitegi errepikakorra... Entretenitzeko baino ez zuen balio glosamolde hark.

Lehenago glosa aldarrikatzaile eta kritikoa egiten zen, eta oso arrakastatsua zen mallorcarren artean. Baina, bi faktorek hondoratu zuten: frankismoak, alde batetik, eta bestetik, aldaketa sozialak, demografikoak, eta oro har, bizimodu aldaketak. Hiruzpalau glosadore haiek mundu zahar baten azken lekukoak ziren. Baina, ustekabean, Mateu Matas, *Xuri*, gaztea agertu zen, hasi zen plazetan kantari, eta glosadore zahar horiek izan ziren hari glosarako aukera eman ziotenak, gazte gehiago sortu arte. Bidea leuntzen saiatu ziren zahar haiek. Aurreko garaietan, beharbada, glosadore batek ez zion beste bati aterik zabalduko oholtzara jauzia eman zezan. Asko ziren garaian lehia ere handia zen, eta norberak bere bidea egin behar izaten zuen. Baina, behin horretaraz gero, glosadore heldu haien lehentasuna glosak berak bizirautea zenez, Mateu beso zabalik hartu zuten. Eta bera izan zen plazetan kantari ikus zitekeen gazte bakarra, urte askoan.

Kontua da 2004an Mateu bera hasi zela glosa ikastaroak antolatzen han eta hemen, gazteen elkarguneetan saioak antolatzen, eta jende gazte bat erakarri zuela glosaren mundura, eta ordura arteko fosilizazio eta folklorizazio prozesuak pikutara bidali zituztela. Eta ni gazte haiengana hurbildu nintzen, arraina uretara nola. Orain hogeita hamar bat gara, elkarte batean saretuta gaude, eta ia astero izaten dira ikuskizunak Mallorcan zehar.

Nolakoak dira saio horiek? Nola irudikatu behar ditugu?

Euskaldun bati azaltzea nahiko erraza da. Saioak antolatzen dira tabernetan, plazetan eta antzokietan ere bai, tarteka. Noiz edo noiz ekitaldi politikoetan ere bai, omenaldietan, edo inork eskatuta urtebetetze edo bestelako ospakizunetan. Guk ere a capella kantatzen dugu, eszenaratzea antzekoa da, soila, gehixeago mugitzen gara, baina, ez askoz gehiago, eta lehen eserita inprobisatzen zen, baina, orain zutik. Eta guk ere binaka edo hirunaka kantatzen dugu, gehienetan, nahiz eta bakarka ere egiten dugun. Tonada edo doinu jakin batzuetan inprobisatzen dugu, silabak neurtuz eta errimatuz. Baina, ez zuenean bezala errima bakarrarekin, -ara errima hartuz gero hasieratik bukaerara -ara errimatu behar! Guk bi errima tartekatzen ditugu aldian-aldian, ABAB edo ABBA egiturak osatuz, eta horrek askatasun gehixeago ematen digu. Eta guk gai librean egiten dugu erabat! Ez zuek bezala, gaiak jarrita. Orain dela lau urte zuek ikusi zintuztegunetik egin izan ditugu tarteka saioak gai eta guzti, geuk antolatuta, probatzeko, eta oso ondo pasa izan dugu. Baina, oso ezberdina da ariketa eta ikasketa prozesu bat eskatzen digu. Gai bakoitzeko hiruna estrofa botako baditugu, gaia ireki eta itxi behar da, eta estrofa bakoitzeko momentu jakinean ideia aski indartsua bota... Ez da mekanismo bera. Ikasiko dugu horretan ere, baina gu, onak, librean gara.

Eta doinukera aldetik?

Egunaren arabera, saio batean bi, hiru edo lau *tonada* erabili ohi ditugu gehienez. Lehen mallorcar glosa tradizionala esaten zaion doinuan baino ez zen inprobisatzen. Lerro kopuru infinitua izan dezake, melodia elastikoa delako, baina, batez beste 8-10 lerroko estrofak kantatu ohi dira, txandan-txandan. Ohiturazkoa horixe da, eta hamarretik bederatzi saio doinu honekin hasten dira. Baina, gizartea aldatzen joan ahala doinu berriak ere erabiltzen hasi gara. Oraindik badago esaten digunik doinuak aldatzen ditugula ez garelako betiko doinuan ordu eta erdi irauteko gauza. Eta gai bagara, baina ez dugu jasaten ez guk eta ez entzuleak ere. Gaur egun bizitza azkarrago doa eta arreta atxikitzeko doinu aldaketa beharrezkoa da.

> ***"Nik ez dut glosa txikitan etxean jaso, baina etxean jaso duena ere ikasitakoa da. Eta aldi berean, nik egin dudan lanaren %90 nire kasara egin dut, ikastaroetatik kanpo"***

Horretarako hemen inprobisatzeko erabiltzen ez ziren Menorcako eta Ibizako glosak geureratu genituen, alde batetik, eta kanta herrikoi gisa ezagunak ziren beste doinu batzuk inprobisatzeko erabiltzen hasi ginen. Publikoak oso ondo erantzun zuen. Doinu berri hauetatik egitura berriak ere sortu dira, noski. Doinu batzuk laburragoak izanik, esaterako, kateaturik kantatzen ditugu, bat bestearen atzetik. Nik hiru edo lau kantatuko ditut, eta zuk zure txandan beste hiru edo lau. Errima aldatzeko aukera ematen du, luzera mantenduz, oraintxe ABBA eta oraintxe CBCB, libreago zara nahi duzuna esateko. Errima aldatu ahal izateak mezu konplexuagoak eraikitzen laguntzen du. Ez zaude errima zerrenda bakarrera mugatuta, eta zerrendatik zerrendara jauzi egin dezakezu, konbinazio posibleak biderkatzen dira, eta zure ideiak ez daude hain oinen menera.

Tradizioa eta berrikuntza txirikordatze horretan sortzen al da debaterik glosazaleen artean?

Bai, noski! Etengabekoa da eztabaida. Gurean, Katalunian ez bezala, glosa tradizional hutsarekiko haria ez da eten, eta, beraz, berrikuntzek eztabaida sortzen dute. Katalunian, katea eten izanak askeago egiten ditu berrikuntzarako, baina, aldi berean, oinarri areatsuagoak dituzte. Gurean, zuenean bezalaxe, bada berrikuntzarekiko uzkur jokatzen duen jendea, eta bada berrikuntzari berrikuntza hutsagatik balioa ematen dionik ere. Baina, oreka nahiko argia topatu dugu gure artean, eta eztabaida antzu batzuetatik ere ihes egitea lortu dugu.

Glosadorea jaio ala egin egiten den, adibidez?

Adibidez! Lehen glosa ikastaroak egin zirenean nahikoa barre egin zuten batzuek. Glosadore zaharrenek esaten zuten alfer alferrik zela eta ez zuela ezertarako balioko. Eta kontu hark lehen emaitzak eman zituenean, hots, inprobisatzen ikasi zuten lehen gazteak kantuan hasi zirenean, orduan esan zutena izan zen "horiek glosadoreak dira, berez", alegia, ikastaroan parte hartu ala ez, berezkoa zutelako egin zirela glosadore. Behin ikastaroen kontua normalizatu denean, glosadore *direnak* eta *ez direnak* bereizten ditu jende batek. Baina, *berez* izatearen kontua tranpatia da. Glosadorea dela aitortzen diogu ezaugarri zerrenda jakin bat betetzen duenari, eta besteei,

berriz ez. Baina, kontua ez da hori. Kontua da tradizioz, zure belarriak ohituta dauden horretara daudela ohituta eta zuri glosadore jakin batzuk iristen zaizkizula eta beste batzuk ez, edo ez hainbeste. Eta hori zergatik da? Batzuk glosadore direlako eta beste batzuk ez? Batzuk ikasiak direlako eta batzuk *berezkoak*? Nik ikastaroetan parte hartu dut eta ikasien multzoan koka dezaket nire burua. Nik ez dut txikitan etxean jaso. Baina etxean jaso duena ere ikasitakoa da. Eta aldi berean, nik egin dudan lanaren %90 nire kasara egin dut, ikastaroetatik kanpo.

Muga horrek ez du zentzurik. Kontua da glosadore batek beti mugarantz egin behar duela, umorean, kritika sozialean, zein poetikan; badago muga bat, eta horretara zenbat eta gehiago hurbildu, hobe, baina, muga pasaz gero, galdu du. Kontua da norberak bere muga propioak dituela, entzule gisa ere. Eta zuri baten edo bestearen glosakera gustatuko zaizu edo ez, muga horien arabera. Hori nola arrazionalizatzen duzun, hor dago gakoa. Iristen zaizun hori glosadorea dela, *berez*? Ba, zure belarrirako, baliteke. Baina, glosadore bakoitzak du bere kantakera, bere gauzak esateko modua, bere mundu erreferentziala eta bere intentzionalitatea. Eta zuri iritsiko zaizu ala ez, baina, ez dago marra argi bat *glosadore direnen* eta *ez direnen* artean.

Hemen ere, kasualitatez, glosarako gaitasuna berezkoa zuten horiek Mallorcako eskualde jakin batzuetakoak, landa eremukoak, eta gizonak izan ohi ziren. Nola bizi izan duzu zuk emakume gisa eremu honetan sartzea?

Gizon gehiago egon izana mende askoan, ez da harrigarria. Glosa publikoa, gaueko kontua zen, tabernetakoa. Eta emakumeek ez zuten eremu horietarako sarbiderik. Etxeetan emakume asko zegoen glosak inprobisatzeko gai zena, baina emakumea ez zen publikoki azaltzen. Ni hasi nintzenean hiru emakume baino ez zeuden, ni baino helduagoak, eta horietako bat baino ez zen plazaz plaza maiz samar ibiltzen. Baina, ni hasi nintzenean, ez nintzen ohartu ere egin gizonen mundu batean sartu nintzenik. Gerora galdetu izan didatenean ohartu naiz. Nik naturaltasun osoz bizi izan dut. Eta orain beste bi emakume ere hasi dira, eta lehengo bik jarraitzen dutenez, izango gara bost bat.

Gero eta presentzia handiago a dugu, eta gure gaietaz ere hitz egin dezakegu, gero eta naturaltasun handiagoz.

Egia da oraindik emakumez soilik osatutako saioak salbuespenak direla erabat, eta gehienbat Martxoak 8ko ekitaldiei lotuak. Hogeitik gora glosadore gizon baldin badaude eta bost glosadore emakume, atera kontuak. Baina, glosa gaztetu eta modernizatu den bezalaxe, emakume gehiago sartzen ari da mundu honetan ere. Garapen erabat normala da. Zergatik ez den oraindik parekidea? Tradizioak eta gizarteak beren pisua dutelako. Baina, ikastaroetan gizon adina emakume dabilela esango nuke. Entzun izan dugu Euskal Herrian haurren bertso-eskoletan erdiak neskak izan ohi direla, baina, gero plazarako jauzian mutilen proportzioa askoz handiagoa dela. Hemen helduentzako ikastaroak baino ez ditugu antolatzen, eta hasi diren emakume guztiak heldu gisa hasi dira. Eta emakumeak duen presio gehigarria argia da, publikoki kantatzeko erreparoari –eta epaiari– dagokionez, zaintza lanen kargari dagokionez… Erreferentzia urritasuna ere hor dago, noski. Haurrentzat ikastaroak antolatzeko aukera dugunean, ea zer gertatzen den. Bitartean, kantuan jarraitzeko arrazoi bat gehiago. ●

Dogmak kolokan

MIKEL ZURBANO
EHU-KO IRAKASLEA

Laurogei urtez dogma neoliberalak errepikatu ondoren, 2008ko finantza krisiak zalantzan ipini zituen baina ez zituen hondoratu. Oraingoan desberdina da, koronakrisiak eta sistemaren salbamendurako neurri sozioekonomikoek dogma hauek banan-banan leherrarazi dituzte.

Erori diren dogmen artean ondokoak daude. Merkatu libreak dena konpontzen duela eta Estatua ez dela efizientea izan da lehena. Ondorioz, Estatuaren jarduera gutxitu behar zen eta bere ekimenak pribatizatu eta desregulatu behar ziren. Koronakrisiarekin merkatu libreak huts egin du nabarmen. Horren adibide esanguratsua musukoaren gabezia izan da. Aldi berean gobernua eta, orokorrean, arlo publikoa indartu egin dira, krisi erraldoi honetarako irtenbideak egotekotan Estatuak bakarrik bideratuko dituela argi utzita. *Wall Street Journal* elitearen aldizkariaren arabera, AEBetako ekonomia pizteko neurriak herrialde horrek planifikazio zentralerako hartutako inoizko urratsik handiena izan dira.

Lurperatu den beste mantra batek dio gure ahalmenaren gainetik bizi izan garela, nahikoa dirurik ez zegoelako. Osasun arreta garestiegia zen, desenplegurako diru laguntzak eskuzabalegiak, soldatak gehiegizkoak eta arazo sozialetarako diru nahikorik ez omen zegoen. Estatuaren defizita eta zorra murriztea ezinbestekoa zen eta horrek aurrezkia eta austeritatea eskatzen zuen. Oraingoan, EBren kasuan bezala milaka miloi euro bideratzen dira gastu publikoa eta pribatua indartzeko eta defizitaren zein zor publikoaren mugak gainditzea ez da arazoa ekonomia ondo bidean ipintzeko.

Koronakrisiarekin merkatu libreak huts egin du nabarmen. Horren adibide esanguratsua musukoaren gabezia izan da. Aldi berean gobernua eta, orokorrean, arlo publikoa indartu egin dira

Halaber, kapitalak eta enpresak omen ziren aberastasunaren iturriak, ausardia eta berrikuntza tarteko enpleguaren eta errentaren sortzaileak lirateke. Etxealdi garaiak kontrakoa ekarri du bistara, aberastasuna lanak sortzen duela alegia. Langile gehienak etxeratu behar izan zirenean hazkunde ekonomikoa hondoratu egin zen. Eta gainera nabarmen geratu da premiazkoak edo beharrezkoak diren lanek sarritan ordain apala dutela.

Aberatsentzat ona dena guztion aldekoa ere badela dioen topikoa hankaz gora geratu da. Lelo horren arabera, ugazaben eta errenta garaien aldeko neurriek inbertsioa handitzen dute eta lanpostuak sortzen dituzte. Baina ekuazio hori ere ez da balekoa. Enpresek jasotako laguntzak ez dira ezinbestez inbertsiora bideratzen, are gutxiago kapitalismo finantzarioa horren indartsua den garaiotan. Gainera, inbertsio oro ez da enplegu sortzailea, areago, eskulana aurreztea ere ekar lezake. *Forbes* aldizkariak dionez, Espainiako Estatuko 23 aberatsenen errentak %16 igo dira itxialdian. Aldiz, enpleguen galera eta pobrezia arriskuaren hedapena ikaragarria izaten ari da han eta hemen.

Zerrenda amaitzeko, itxialdian jendeak auzolanerako eta kolaboraziorako jarrera erakutsi du nagusiki. Beraz, jendearen pizgarria lehenik eta behin norberaren interesa delako lelo liberala ere auzitan jarri da. Jokabide berekoiak ere egon diren arren, elkartasuna nagusitu da auzokideek nagusien erosketak egitean, mediku zein erizainen jarrera eskuzabalarekin, eta abar.

Zerbait berria eraikitzeko unea da. Horren aldeko aldarriak entzuten dira nonahi. *Financial Times* liberalak ere gobernuaren zeregina handitzearen eta zerbitzu publikoen alde agertzeak paradigma aldaketaren zantzuak mahai gainera ekartzen ditu. Kapitalismoaren birfundazioari buruz Sarkozyk 2009an botatakoa ekartzen du gogora. Oraingoan baina, ez dago atzera bueltarik. ●

Gas argia

ANTTON OLARIAGA

JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Hamar urte pasa dira bikote harreman hori bukatu nuenetik. Ordutik, zauria berriro irekitzen den bakoitzean –eta maiz irekitzen da, tipo horrek maskulinitate berrien esparruan lan egiten baitu– zurrunbilo berbera berpizten da nire baitan: bizi izan nuen horri indarkeria psikologikoa deitu ahal zaio? Hortaz, maite izan nuen gizon profeminista hori erasotzaile matxista dela esan dezaket? Zuzena da harremana apurtu ondoren beraren jokabideei jazarpena eta intimidazioa ezizenak jartzea? Indarkeria izan bazen, nire burua biktimatzat hartu behar dut? Ez dira horiek guztiak hitz potoloegiak, pisutsuegiak?

Denborarekin, erosoago ahoskatu ditzakedan kontzeptuak deskubritu ditut. Abusu emozionala izan zen, bai, duda barik. Botere harreman oso desorekatu batean errotutakoa: ni emakume gaztea, mutil-laguna hamahiru urte zaharragoa, eskarmentu handikoa ni jaioberri nintzen esparruetan, feminismoa barne.

Beste kontzeptu bat, gas argien indarkeria: "Abusatzailea beste pertsonaren errealitatearen pertzepzioa aldatzen eta bere autokonfiantza murrizten saiatzen da, bere oroimena edo zuhurtzia zalantzan jarriz eta ezegonkortasun emozionala eraginez". Beatriz Villanuevaren artikulua *Pikara Magazine*n irakurtzerakoan identifikatu nuen bizitakoa eta egun ere bizi dudana. Hain zuzen ere, nire egia etengabe zalantzan jartzea da gas argien indarkeria bizi izanaren ondorioa.

Tania Martinez Portugal politologoak urteak daramatza esparru aktibistetan ematen diren indarkeria matxistak ikertzen. Master amaierako lana eta doktoretza tesia publikatu ditu gai horren bueltan, eta muina abusu matxistak bizi izan dituzten emakume militanteen testigantzak izan dira, nirea barne. 2013an egin zidan elkarrizketan esan nuen kostatzen zitzaidala bizitakoa indarkeria gisa definitzea, agian egokiagoa zela harreman toxiko gisa definitzea. "Badirudi gizon batek diskurtso politiko aurrerakoia eta profeminista eta militantzian ibilbidea badu, ezin dela tratu txarren emailea izan. Ideia horrek erasotzaileak identifikatzea eta harremana indarkeria sexista gisa deskribatzea oztopatzen du eta indarkeriari buruzko kontakizuna gezurtatzeko eta deslegitimatzeko erabil daiteke", ondorioztatu du politologoak.

Baina narratibek "erasotzaile politikoki zuzenek" partekatzen dituzten praktikak agerian uzten dituzte: gas argien indarkeria, sexualitatea kontrolatzeko grina eta jeloskortasun-eszenak egiteko joera, heldukeria, aitakeria eta aitapontekotza, besteak beste. Harremana bukatzen denean, emakumeek beraien ospea kaltetu ahal dutela beldur direnean, modu sotiletatik eraso bortitzetarako saltoa ematen dute erasotzaile hauek.

Amaia Lekunberrik ARGIAn egin zion elkarrizketan, zera esaten du Martinez Portugalek: "Erasoa jasan dugun emakumeok geure kabuz bilatu behar izan dugu erreparazio modua. Geure osasuna, denbora eta energia inbertitu behar izan ditugu ongizatea lortzeko. Eta taldeek eman dituzten erantzunak oso kaxkarrak izan dira orokorrean. Baina geroz eta kontzientziazio handiagoa dago. Espero dezagun gauzak mahaigaineratu ahala aldaketak ematea".

Komunikazioa ogibide eta bokazio dudan aldetik, nik bizitakoa eta ikasitakoa kontatzea da egin dezakedan ekarpena, eta horrek ematen dit erreparazio puntu bat. Zurrunbiloa ez da desagertu. Erantzun kolektiboak agertu dira. Aldaketen seinale, espero dut. Eta, tira, zauria sendatzen denbora eta energia gutxiago inbertituko dudan esperantza daukat. ●

Ulermenaren giltza

MIKEL IRIZAR
ANALISTA POLITIKOA

Duela hamabi urte hizkuntza arduradun nintzen Gipuzkoako Kutxan. Eta hiztun espezie interesgarria aurkitu nuen bertan: 80ko hamarkadan euskara ikasteko ahalegin serioa egin, emaitza biribiltzerik lortu ez, eta zekiten euskara ezkutatzen zuten lankideak. Nolabait esateko, "Everestera ez bada, Igeldora zertarako?". Denbora batez lan sistematikoa egin nuen haien ulermenaren balioaz jabetu zitezen, beraiek euskaraz egin gabe ere besteei euskaraz egitea ahalbidetzen zielako. Eta epe laburrean emaitza harrigarria gertatu zen: hainbat korapilo askatu zen, jarrera asko hurbildu, eta euskara gehiago erabiltzen hasi. Ulermenaren bertuteak.

Duela bost urte hizkuntza arduradun nintzen Gipuzkoako Aldundian. Eta ulermenaren gaineko informazioa biltzen hasi nintzen, giltza hori erabili nahian. Orduan egin nuen topo Aldahitz ikerketarekin eta Pello Jauregirekin. Hizkuntza ohiturak aldatzeko bideak ikertzen ari zen 2010az geroztik, eta Eusle metodologiarekin esperientzia sistematikoak ari zen burutzen hainbat lantegitako taldetan. Kontua zen euskarazko hiztun irmoentzat esparruak antolatzea, eta denbora jakin batez neurtzea haien jardun euskaldunak taldearen ohituretan zuen eragina. Esperimentuan, 'eusle' ziren horiekin batera, eginkizun esanguratsua zuten 'uzle' zirenek, hau da, euskara ulertzeko gai ziren taldekideek. Bistan da gaur egungo ahobizi, belarriprest eta ariguneen aurrekariak direla.

Testuinguru horretan erronka bota nion Pellori: ulermenak erabileraren atea zabaltzen duenez, ikertu dezagun ea zenbat denbora behar den oinarrizko ulermenera iristeko, eta zein metodologia landu behar den denbora hori ahalik eta laburrena izan dadin. Erantzuna oraintsu iritsi da Soziolinguistika Klusterraren eskutik, eta libre dago hemen: www.soziolinguistika.eus/ulersaioak

Ikerketak bistaratzen du ulermena tresna oso ahaltsua dela euskararen biziberritze prozesuan jauziak eragiteko. Euskara ikasteko bidea ulermenetik hasita, 60 ordutan lortu daiteke oinarrizko ulermen maila bat; eta, ondorioz, euskarari belarriak itxi ordez belarriak zorrozteko jarrera hartzea. Tarteko helmuga lorgarri batekin hasita errazagoa da oztopoak gainditzea eta, aurrera egin ahala, helmuga urrunagoak –ezagutza– bilatzea.

Aurrerapauso handiak ekar ditzake, eta eskura daukagu. Gure hainbat eskema eta jarduera moldatu beharko genituzke ulermenaren giltza modu eraginkorrenean erabiltzeko. ●

TikTokerrak

LEIRE NARBAIZA ARIZMENDI
IRAKASLEA

Heldu gehienok TikTok zer den ere ez dakigu. Baina 9 urtetik gorako ume/gazteak zoratuta dabiltza aplikazioarekin, euren denborapasa gogokoenetakoa delako.

Hainbestetan entzunda, deskargatu egin nuen. Edukiak ikusteko ez da izenik eman behar, gainera. Oso bideo laburrak agertzen dira, aliritziz, klik egin barik. Erpurua pantailan gora eta behera erabili nuen ordubete luzez arratsalde pare baten, telefonoaren bateriak nahikoa! esan arte.

Txiste, meme, challenge eta estiloko jolasak ikusi nituen, asko errepikatuta, batzuk aspergarriak, bat edo beste gogokoa. Voxeko larregi. Ia denak gaztelaniaz, gutxi batzuk ingelesez eta bat-edo euskaraz.

Horrelako giro jostarietan sortzen dira hizkuntzari bizindarra ematen dioten argot eta gazte-hizkerak. Horregatik, gure gaztetxoak txundituta dituelako, ezinbestean TikToker euskaldunak behar ditugula uste dut. Baliabide guztiak (batez ere ludikoak) aprobetxatuta lortuko dugulako hizkuntza indartzea. Gainera, txikiek sortu eta erabiliko lukete, dibertituta. Birus sasoian euskara biralizatuko litzateke, eta jolasgai izango lukete.

Noiz TikTokertuko gara? ●

Hezkuntza sailburu berriaren etxeko lanak

MIKEL BASABE KORTABARRIA
IRAKASLEA

Gobernu berria antolatzera doa Urkullu lehendakaria. Pentsatzekoa da sailburu aldaketak gertatuko direla. Tartean, hezkuntzakoa.

Nire ustean, Hezkuntza sailburu berriak lau gairi ezinbestean heldu beharko die, euskarari dagokionez.

Lehenengoa, ziurtatu irakaskuntzara oposizioen bitartez ailegatuko diren irakasleen euskara-maila. Eskolak euskaraz eta ahoz emango dituen irakasleak oposizioko ahozko atala euskaraz gainditu beharra dauka. Erakutsi beharra dauka euskaraz ondo egiten duela. Harrigarria gerta badaiteke ere, oposizioak oso-osorik gaztelaniaz egin daitezke oraindik ere.

Bigarrena, birpentsatu 2011z geroztik probaldian dagoen 3L eredua, eta berriro diseinatu: D ereduan baino ez da euskaraz ikasten, eta gure ikasleetako askok eskolakoa dute euren euskara ia bakarra. Lehenengo ikasturteetan euskara hutsean aritu; adinean aurrera egin ahala gaztelania eta ingelesa gehituz joan. Eleaniztasunak elebitasunaren ondoren behar baitu.

> D ereduko ikasle gehienen egunerokoan hizkuntza arrotza da euskara; guk, ostera, hizkuntza propioa bailitzan erabiltzea gura dugu. Horiek biak kontuan harturik irakatsi beharko genieke

Hirugarrena: neurtu ebaluazio diagnostikoetan ahozko erabilera ere, eta hartu hura hobetzeko neurriak. Zelan daiteke ikasleen hizkuntza-ezagutza neurtzea, ahozko probarik egin barik? Euskararen ezagutza idatzia atzera egiten ari da, EDz ED. Ahozkoa are apalagoa da, seguru. Erabilerak arduratzen gaituen honetan, ahozko gaitasuna hobetu beharra dago. Besteak beste, curriculuma birplanteatuta eta gelako egunerokoa errotik aldatuta. D ereduko ikasle gehienen egunerokoan hizkuntza arrotza da euskara; guk, ostera, hizkuntza propioa bailitzan erabiltzea gura dugu. Horiek biak kontuan harturik irakatsi beharko genieke.

Laugarrena, orokortu Lanbide Heziketan euskaraz ikasteko aukera. Negargarria izan da azken sailburuen utzikeria arlo honetan. Hainbestekoa, ezen zalantza barik esan daiteke azken zortzi urteak urte galduak izan direla Lanbide Heziketako ikasle euskaldunentzat. Beste neurritxo bat ere, Lanbide Heziketan: ingelesa derrigorra duten legez, euskara ikasgaia ere eredu guztietan ikas dezatela. Gaur-gaurkoz, milaka dira batere euskararik irakasten ez zaien Lanbide Heziketako ikasleak.

Niri lau horiek otu zaizkit. Ziur nago irakurleetako bakoitzak beste hainbeste plantea ditzakeela burua larregi nekatu barik.

Ez ahaztu, baina, neurriok lau zein laurehun izan, badagoela aldez aurreko betekizun bat, ezinbestekoa: euskal hezkuntzaren ardatza euskara dela sinestea. Sinestea eta praktikatzea, zuzkiduran bezala legean ere. ●

INPRENTA
Offset eta digitala

DISEINU GRAFIKOA

DISEINU EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO **GRAFIKOA**

Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!

ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK

www.antza.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus

ETXEBIZITZAK TURISTIFIKATU, ALDE ZAHARRAK EZ BIRGAITZEKO

Alde Zahar batzuen ezinbesteko birgaitze sozial eta urbanistikoan inbertitu beharrean, tokiko erakundeek eta erakunde autonomikoek auzoa eta bere etorkizuna higiezinen negozio turistikoaren eskuetan utziko balute, auzokideak babes gabe utziz? Hirigintza araudian aldaketak egingo balira, erabilera turistikoko etxebizitzek (ETE), erabilera turistikoko logelek (ETL) eta apartamentu turistikoek bizitegi-etxebizitzak auzotik desagerrarazi ditzaten? Imajinatzen duzue, etxebizitzen turistifikazioa sustatzen duten inbertitzaile pribatuen zerbitzura baleude erakunde publikoak? Gasteizko Alde Zaharraren kasuan ez da hipotesi hutsa; auzokideen erantzunak galarazten ez badu, Udalak aukeratutako bidea hori da.

KUTXIKO TXOKO TXIKITXUTIK **DOSPORDOS**

Gasteizko Alde Zaharrean 1980ko hamarkadaren erdialdetik aurrera entseatutako Birgaitze Integraleko Plan Bereziak (BIPB) ez dira gai izan egoera gero eta kezkagarriagoari aurre egiteko. Ez arlo sozioekonomikoan –hori konpontzen saiatu ere ez dira egin–, ez eraikuntzarenean: auzoko eraikinen ia erdiak premiazko edo oso premiazko esku-hartzea behar du –arrisku estrukturalen ondoriozko utzarazpenak ohikoak dira–; etxebizitzen laurdena hutsik dago *ofizialki* –hamarnaka batzuk udal jabetzak dira–; pertsonen bizileku diren dezentetan pilaketak eta baldintza penagarriak daude –hirian beste 'bizileku-aukerarik' ez duten pertsonak–; asko dira isolamendu sozial larriko kasuak, igogailu ezak eraginda...

Funtsezko arazoa ez da auzotarrek etxebizitzak mantentzeko duten utzikeria, baizik eta ezartzen zaizkien baldintzekin obra garrantzitsuei aurre egiteko duten ezintasun ekonomikoa: beharrezkoak diren obra guztiei aldi berean ekitea; obren amaieran soilik kobratzen diren eta horiek egiteko hipotekatzera behartzen duten laguntzak; pertsonen diru-sarrerei egokitutako finantzaketa biderik ez izatea. Laguntzetarako politika jakin baten ondorioa da bizi dugun arazoa. Dirua duenari ematen zaio lehentasuna, nahitara, auzoa berritzeko (gentrifikatuz). Eta, batez ere, auzora bideratutako inbertsioen gehiengo nabarmena Santa Maria Katedrala zaharberritzera bideratzen da urte asko dela, "parerik gabeko Erdi Aroko hirigune" baten merkaturatze turistikoaren estrategiaren barnean.

Udal legealdia aldatzearekin batera, sakoneko arazoari heltzen zion diskurtsoa entzun genuen Hirigintzako ardura duen Ana Oregi zinegotziaren ezpainetan. Beharrezkotzat jotzen zuen "esku-hartze

ILEGALA. Legez, gaur egun behe solairuak soilik bilakatu daitezke etxebizitza turistiko; argazkian, Gasteizko Alde Zaharreko atari batean ETE bat iragarrita, hirugarren solairuan.

publikoa areagotzea, auzoaren narriadura lehengoratzeko eta bere baldintza sozioekonomikoak, hirigintzakoak, eraikuntzakoak, ingurumenekoak eta kudeaketakoak hiriko gainerakoekin parekatzeko". Aldi berean, auzoko eragileekin eta herritarrekin parte-hartze eta adoste prozesu baterako konpromisoa hartu zuen, BIPBa berrikusteko aurre-urrats gisa. Hilabete batzuk geroago, gainera, birgaitzerako laguntzen politika aldatzea proposatu zuen, "bereziki errenta tarte txikienei erreparatu beharko liekeelako, kasu larrienetan birgaitzeko beharrezkoak diren funtsak ahalbidetuz eta, beharrezkoa balitz, birgaikuntzaren kostu osoa kitatuz".

BIRGAITZE SOZIALAREN ALDE EGITETIK, TURISTIFIKAZIOA BULTZATZERA

Hilabete geroago, ordea, alkateak berak egiazko birgaitze politika argitu zuen: "Udalak Erdi Aroko hiriguneko eraikin osoetan pisu turistikoak egiteko aukera emango du auzoaren biziberritzea bultzatzeko". "Bat gatoz Arabaturren ikuspegiarekin, alegia, erabilera turistikorako etxebizitzek basamortutzeari eta auzoaren degradazioari aurre egingo diote", gaineratu zuen. Zer gertatu da aldaketa bortitz horretarako? Zer da Arabatur eta zer paper jokatzen du honetan? Eta, batez ere, zer ekarri diezaioke auzoari alkateak iragarritakoak?

Gertatu dena da ostatu turistikoen lobbyak hilabeteak daramatzala itzalean lanean bere helburua lortzeko: Gasteizko, eta bereziki Alde Zaharraren, etxebizitzen turistifikazioa. Lobby lana udal mailan zein nazioartean egiten du sektoreak. Etxebizitza arloko Parisko zinegotziak honela deskribatzen du sektoreko enpresa nagusiarekin izan duen esperientzia: "Gauza bat egia da, erabaki maila bakoitzean, tokikoa, nazionala, europarra eta nazioartekoa, multinazionalaren lobbyaren aztarnak aurkitzen dira (*Airbnb, la ciudad uberizada*, Katrakak, 2019). Tokiko edo erkidegoko araudi ororen aurka egiten dute. EAEren kasuan, Auzitegi Nagusian inpugnatu zituzten bai Bilboko ordenantza (2019) bai Donostiakoa (2020), eta Espainiako Auzitegi Gorenera jo zuten EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak aurka egin dienean (2020).

> Ostatu turistikoen lobbyak hilabeteak daramatza itzalean lanean bere helburua lortzeko: Gasteizko etxebizitzen turistifikazioa

Lobby lana egin duten beste hiri askotan bezala, Gasteizen ere Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean (HAPO) aldaketa zehatz bat egitea lortu zuten. Gasteizen ETE eta ETL direlakoak baimendu ziren horrela –apartamentu turistikoak debekatuta zeuden 2008az geroztik–. Ez da nolanahiko aldaketa: HAPOaren aldaketari buruzko Memoriaren arabera, behin onartuta, ETE eta ETL artean 18.697 etxebizitza turistiko egon litezke Gasteizen (guztien % 16,13). Hau da, Alde Zaharrean dauden etxebizitzen kopurua halako lau, gutxi gorabehera.

Baina arlo horretan Alde Zaharreko BIPBa HAPOaren gainetik dagoenez, BIPBaren aldaketa puntual bat ere sustatu zuten, auzoan HAPOa ezarri ahal izateko. Udalaren hasierako aldaketa proposamenak, halere, apartamentu turistikoen debekua baliogabetzen bazuen ere –hotelekin parekatuz–, ETE eta ETL delakoen kasuan murrizketa bat ezartzen zuen: beheko solairuetako etxebizitzetan soilik baimendu zitezkeen.

Sektoreko enpresen interesak ordezkatzen dituen Arabatur elkarte sortu berriak alegazio bat aurkeztu zuen orduan. Alegazio horretan proposatzen zuen ETE eta ETL-ak edozein solairutan baimentzea. Edo, halakorik ezean, ETEak baimentzea eraikineko etxebizitza guztiak mota horretakoak izatean. Harrigarriena da Tokiko Gobernu Batzarrak (EAJ eta PSEk) joan den uztailean erabaki zuela alegazioaren bigarren aukera hori onartzea, eraikin osoetako ETEak onartuz. Inolako mugarik jarri gabe –adibidez, eraikin-kopurua edo haien arteko distantziak– eta, batez ere, onarpenaren unean eraikinean jabetzan eta alokairuan egoiliarrik ez egotera baldintzatu gabe. Azken hori da higiezinen agentziek auzokideak kanporatzeko bultzatzen dituzten jazarpen praktikak eragozteko modu nagusia. Aldaketak behin betiko onarpena behar du orain, Udalaren osoko bilkurak eman beharko liokeena.

Badirudi lobbyak ondo egin duela bere lana, Udalaren erabakia Hirigintza Kudeaketako Buruzagitzaren *Informazio eta justifikazio memoria* batek bermatzen baitu. Alfredo Pirisek sinatu du txostena, hiriko hirigintza proiektu garrantzitsuenen sustatzailea izan zena urteetan, 21 Zabalkunde udal elkartearen zuzendaritzatik. Elkarte horren kudeaketaz Gorka Urtaranek berak, alkate izan aurretik, dirua xahutzeko nahiaren susmoak agertu zituen. Pirisen txostena hiru faktoretan oinarritzen da alegazioaren onarpen partziala defendatzeko: batetik, aldaketarekin auzoaren basamortutzeari eta degradazioari aurre egingo zaiola; bigarrenik, auzoaren eskaintza turistiko, kultural eta gastronomikoa handia dela, eta hirugarrenik, blokean bizi diren gainontzeko egoiliarrei kalterik edo eragozpenik ez zaiola sortuko.

Ez gara luzatuko faktore horietako bakoitza gezurtatzen, auzoko bizilagu-

nek eta guk geuk –Kutxiko Txoko Txikitxutik Gasteizko Alde Zaharreko bizilagun komunitateak– egin dugu jada, aurkeztu ditugun alegazioetan. Baina erreparatu diezaiogun Arabaturren alegazioaren funtsezko baieztapen honi: "Zalantzarik gabe (...) eraikinen birgaitze urbanistikoa bultzatuko luke". Zer esan nahi digu birgaitze urbanistikoa bultzatuko lukeela dioenean? Duda barik, negozioa egiteko prest dauden inbertitzaileak erakarriko lituzkeela. Negozioa, baldintza txarretan dauden etxebizitzak oso merke eskuratuz lehenik, horiek birgaituz ondoren –hein handi batean, laguntza publikoekin– eta, azkenik, etxebizitza turistikoen merkatuan jarriz. Horretarako, ordea, bertan bizi diren bizilagunak etxeetatik kanporatu behar ditu. Eta hori sustatzeaz, hain zuzen ere, Arabatur arduratzen da, besteak beste: "Elkarte honetako etxebizitza turistiko gehienak birgaitu diren eta erabiltzen ez diren etxebizitzak dira", dio bere alegazioan. Inplizituki onartuz alokairu eta salmenta tradizionaleko merkatuan egon zitezkeen etxe birgaitu horiek hutsik daudela... ETE bilakatzeko baimena emateko zain. Bestela esanda, negozioa egin nahi dute birgaitutako etxeak hutsik mantenduz.

> Negozioa egiteko, bertan bizi diren bizilagunak etxeetatik kanporatu behar dira. Arabatur arduratzen da hori sustatzeaz

Kapitalismo neoliberalaren logika gordina da. Eredu horrek ez du auzoa bere eraikinetan bizi diren pertsonez osatutako auzo komunitate gisa ikusten, baizik eta errentagarritasun handiz inbertitzeko lurzoruen multzo gisa. Hori da Arabaturren alegazioa onartuz gero Gasteizko Udalak bultzatuko lukeen birgaitze espekulatibo eta ez-sozialaren eredua. Auzoarentzako ondorio negargarriekin.

ETXEBIZITZEN TURISTIFIKAZIOAK ALDE ZAHARRETAN DITUEN ONDORIOAK

Etxebizitzen turistifikazioaren erritmoa eta intentsitatea desberdina da herri bakoitzaren alde zaharretan. Baina haien esperientzietatik aurreikus ditzakegu Udalaren azken neurriak Gasteizera ere ekarriko dituen ondorioak.

Donostiako Alde Zaharrean, turismora bideratutako plazen kopurua biztanleriaren %20 baino handiagoa da. Bilbon, SOS Alde Zaharra plataformak salatu du jasanezina dela alokairuen prezioaren garestitzea, ETE eta ETL delakoen ezartzeak ekarri duena. Iruñean, Alde Zaharreko bizilagunek legez kanpoko 81 etxebizitza turistiko atzeman dituzte. 2018an, Hego Euskal Herrian, turismorako 5.521 ostaturen iragarki ofizial zeuden, horietatik ia laurdena "jabe anitzenak" edo 5 jabetzatik gorako enpresenak. Ipar Euskal Herrian, 2016ko irailetik 2017ko irailera, 9.230 etxebizitza turistiko eskaini ziren Airbnbn, hotelen eskaintza gaindituz. Ikusten dugunez, eta Donostiako Parte Zaharrean Bizirik taldeko lagunek salatzen duten moduan, "prozesu hori ez da naturala, ezta istripua ere, baizik eta berariazko estrategia baten ondorioa. Politika horietan parte hartzen dute erakunde publikoek, enpresa pribatuek, hedabideek eta gizarte zibileko kideek, kontroletik eta legitimitate demokratiko formaletik ihes egiten duten lobbyak bultzatuz".

> Beste herrietako alde zaharren turistifikazioaren esperientzietatik aurreikus ditzakegu Udalaren azken neurriak Gasteizera ekarriko dituen ondorioak

Ondorio larriena desplazamendu moduan jasaten dute auzokoek. Desplazamendu horrek forma ezberdinak har ditzake: zuzena, pertsona bat etxebizitza uztera behartzen dutenean bere borondatearen aurka; bazterketa, pertsonak etxebizitza bat eskuratu ezin duenean prezioagatik edo alokairu faltagatik; kanporatzea, zaraten eta bizikidetzaren arazoen ondorioz; edo desplazamendu kolektiboa, auzoan bizitza komunitarioa ezinezkoa bihurtzen denean. Jakina, norberaren egoera sozioekonomikoa (eta legezkoa) zenbat eta ahulagoa izan, orduan eta desplazamendu kopuru eta maila handiagoa jasango du.

Arabaturren alegazioa onartu edo ez, asko dago jokoan. Orduan argituko da birgaitze sozialaren aldeko apustua ematen zuen horretan oinarrituko den udal politika. Edo, aitzitik, prozesu gentrifikatzaile berri baten alde egiten den –turistifikazioa ere horixe da–, ETEei eta ETLei lotutako interes espekulatiboen eskutik. Bizilagunak auzotik kanporatuz –bereziki, sozioekonomikoki zaurgarrienak direnak–, eta auzo izaera desagerraraziz. ●



Ruth Wilson Gilmore akademiko eta giza eskubideen aldeko ekintzailea Critical Resistance abolizioaren aldeko erakundearen kide eta Kaliforniako Espetxeen Moratoria Proiektuaren (*Prison Moratorium Project*, ingelesez) sortzaileetako bat da. COVID-19az, "indarkeria antolatuaz" eta abolizionismoaz mintzatu da.

COVID-19 gaitzaren hedatzeak AEBetako espetxe-egituran giltzaperatuta dauden 2,3 milioi pertsonaren bizia arriskuan jarri du. Maiatzaren 1ean, *The Marshall Project* hedabideak espetxeratutako 14.000 pertsonaren eta espetxe-egiturako 4.000 langileren positiboaren berri eman zuen. Diagnosi probak lortzeko zailtasunak direla eta egiazko datua askoz handiagoa izan daitekeela uste da. Horien bizitza salbatu eta birus hilgarriaren hedapena gelditu arren, pertsona multzo horren askatasuna eskatzen dute giza eskubideen aldeko hainbat ekintzailek. Ruth Wilson Gilmore abolizioaren aldeko adituarekin harremanetan jarri gara gaiaz mintzatzeko. Lur eta Ingurumen Zientzietako irakaslea eta New York Hiriko Unibertsitateko (CUNY, ingelesez) Kultura, Politika eta Lurralde Zentroaren (*Center for Place, Culture and Politics*) zuzendaria da. *Golden gulag: Prison, Surplus, Crisis, and Opposition in Globalizing California* liburuaren egilea da ere (Urrezko gulaga: Espetxea, Superpopulazioa, Krisia eta Oposizioa Globalizatzen ari den Kalifornian*). Change Everything: Racial Capitalism and the Case for Abolition* deituko da bere hurrengo liburua (Dena aldatu: arraza-kapitalismoa eta Abolizioaren aldeko kausa).

AMY GOODMAN ETA JUAN GONZÁLEZ
EUSKARATZEA | **ASIER BERAMENDI**

"ESPETXEEN ABOLIZIOAREN ALDE"

RUTH WILSON GILMORE

Elkarrizketa hau Democracy Now hedabideak argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

“Abolizioa” defini zenezake? Koka zenezake pandemiaren testuinguruan?

Abolizioaren helburua da aldatzea gauzak pentsatzeko eta egiteko modu bat. Espetxea eta zigorra ezin da gizarte, ekonomia, politika, jarrera edo pertsonaren arteko harremanetan sortzen diren edonolako arazoren konponbide gisa aurkeztu. Espetxeen abolizioak ez du presoak besterik gabe askatzea edo kaleratzea aldarrikatzen. Elkarren arteko bizimoduaren berrantolaketa proposatzen du, AEBetan eta mundu osoan jende asko egiten hasi den hausnarketa da, hain zuzen ere. Ez da amets edo ezinezko fantasia bat. Neurri praktiko eta egingarria da errealitatean, bai New Yorken, Texasen, Hegoafrikan edota beste edonon.

Zein erantzun ematen zaie gainontzeko herrialdeetan krimenaren eta zigorraren inguruko arazoei? Nola izan daiteke munduko presoen portzentaia hain handia AEBetan egotea?

Interesgarria da mundu osoko lau presotatik bat AEBetan egotea, kointzidentzia hutsa bada ere. Interesgarria da, era berean, COVID-19 izurriaren ondorioz hil diren lau pertsonatik bat estatubatuarra izatea [elkarrizketa uztaila amaieran egina da]. Kointzidentzia ala ez, gure elkar-antolatzeko moduan pentsarazi dit, Atlantikotik Ozeano Bareraino aurki ditzakegun politika ezberdin eta anitzengan. Munduko beste tokietan gauza bat argi ikusten da: bizitzak merezi eta balio duen tokian, bizitzak balio du; Estatu, gobernu, udaletxe, justiziaren aldeko erakunde, komunitate erlijioso eta sindikatuek elkarren artean guztion bizitza hobetzeko lan egiten duten tokietan, krimena eta zigorrarekin loturiko arazoak, baita pertsonen arteko kalteak, askoz gutxiago dira. Biztanleria oso anitza den lekuetan, berriz, AEBetan bezala, gehiago gertatzen dira. Krimena eta zigorraren erabilera askoz ohikoagoa da gizarte-ezberdintasuna handiagoa den lekuetan. Edozein kasutan, ez dago AEBen kasua bezalakorik.

Antolatutako utzikeriaz eta indarkeriaz hitz egiten duzu; pandemiari estuki loturik dauden bi gaitz direla diozu. Azaldu zeniezaguke?

“Gaitz” hitza erabili dut nik? Baliteke baietz, ados. Pandemiaren bi zehar-ondorio dira. Pertsona, etxe, komunitate

> “Abolizionismoaren hainbat lider etxeko indarkeria gaitzestetik abolizioa aldarrikatzera pasa da”

eta auzoek pandemiaren aurrean duten babes maila ezberdinean islatzen da utzikeria. Baita babesa bilatu duten pertsonei eman zaien erantzunean ere, New York hirian metroan bizi diren pertsona etxegabeen kasuan bezala. Ereduak zaintza eta kriminalizazioa ditu oinarri. Hau da, utzikeriaren ondorioz sortutako arazoak zigorraren bitartez konpondu nahi dira. Antolatutako utzikeria ez da soilik estatuarena, baita kapital ekonomikoarena edota ondasun higiezinen kapitalarena ere, geroz eta luxuzko etxebizitza gehiago eta pisu eskuragarri gutxiago egiten dituzte, New Yorken eta AEB osoan gertatzen den moduan. Edo turismoaren kapitalak duen utzikeria, pertsona talde batzuk hiriko zonalde batzuetatik kanporatu eta soilik zerbitzuetako langileak badira –garbitzaileak, zaintzaileak, banatzaileak...– onartzen

baitituzte. Antolatutako utzikeria modu ugaritan gertatzen da, eta hausnarketa bat eskatzen du horrek: kapitalek, handiek, txikiek, udalenak edota estatuenak, elkarren artean nola egiten duten lan pertsona multzo zehatz batzuei ateak ireki eta beste batzuei ixteko.

Espetxe egituraren erreforma eztabaidatzean, indarkeriarik gabeko delitugileei eman beharreko laguntza aipatzen da maiz, indarkeria erabili duten delitugileekin ez bezala. Hauen kasuan, zigorra oso-osorik bete beharko dutela ziurtzat hartzen da, inolako zalantzarik gabe. Zein iritzi duzu preso biolento eta ez-biolentoak bereizteko saiakeraren inguruan?

Banaketa horrek pertsona multzo zehatz batek aldatzeko gaitasunik ez duela eta, gainera, zalantzarik gabe inolaz ere ez dela aldatuko badakigula iradokitzen du. Espetxeratuak diren pertsonen gehiengoa egunen batean espetxea utzi eta aske izango dela ahazten ari gara, delitua dena-delakoa izanik ere. Beraz, pertsona multzo hauek nola jokatuko duten aldez aurretik badakigula pentsatu beharrean, kanporatu dituen mundura nola itzuli daitezkeen pentsatu behar genuke, iraganean eragindako kalteek etorkizunean ez dutela inor kaltetuko ziurtatzeaz gain. Hori aldatzeko, hain zuzen ere, abolizionistek justizia eraldatzailearen ildoa jarraitzen dute. AEBetan eta mundu osoan badira abolizionismoaren hainbat lider, Mariame Kaba, Andrea Smith, Kelly Gillespie eta beste hainbat, esaterako, etxeko indarkeria gaitzestetik abolizioa aldarrikatzera pasa direnak. Indarkeriaren eta minaren aurka ari ziren borrokan eta konturatu ziren abolizioa zela zigor handien bitartez konpontzen ez diren arazoen konponbidea.

Zure ikerketak Kaliforniako espetxeratzeetan jartzen du arreta; herrialdeko estatu handienetakoa, aberatsena eta biztanleria gehien duena da. Zer ikasi dezakegu kasu honetatik?

Bada elkarbanatu nahi nukeen ikasgai bat, bai: Kalifornia bere espetxe egitura handia are gehiago handitzeko prozesuan zegoen. Orduan sortu zen AEBetako mugimendu abolizionista garaikidea. Kaliforniako landa eta hiri eremu guztietan zehar borrokan hasi ginen, sindikatuekin, osasun zerbitzuetako langileekin, komunitate erlijiosoekin, militante ekologistekin eta beste hainbatekin indarrak batuz; espetxea eta zigorra krimenaren konponbide zuzena dela defendatzen duen ideia desegiten hasi ginen. Ondorioz, 2000. urterako Kaliforniako espetxeetan aurreikusten zen preso kopurura ez iristea lortu genuen. Abolizionisten lanari esker gertatu zen hori, eta lan hori hedatu egin behar dugu. Los Angeleseko konderrian hainbat garaipen ikusi dugu: hamabost urteko borroka eta gero, milioi askoko aurrekontua zuten hainbat espetxeren eraikitzea bertan behera geratzea lortu dugu. Egin dezakegu, posible da. ●

> “2000. urterako Kaliforniako espetxeetan aurreikusten zen preso kopurura ez iristea lortu genuen. Abolizionisten lanari esker gertatu zen hori, eta lan hori hedatu egin behar dugu”

KALIFORNIAN dagoen North Kern State Prison. 2.694 preso dauzkate bertan.

JOSEBA ELOSEGI,
50 URTE SUA PIZTU ZUELA

“Gora Euskadi Askatuta”

Gernikako bonbardaketa ezin ahazturik, Francori txanpon berarekin erantzuteko, bere burua sutan jaurti zuen Joseba Elosegik Donostian pilota partida bat ikusten ari zela, “Gora Euskadi Askatuta” oihukatuz.

URKO APAOLAZA AVILA

1970eko irailaren 18a, Donostiako Atano III.a pilotalekua. Erregimenaren ordezkariz eta poliziaz gainezka daude harmailak. Francisco Franco diktadorea ere bertan da, Munduko VI. Pilota Txapelketaren hasiera ikusteko. Arratsaldeko zazpiak eta hogeian, talde guztiak kantxan daudenean, berrogeita hamabost urte inguruko gizonezko batek, aurretik komunean ezkutatutako Insalus botilarekin busti du puntuzko txaketa urdina eta gorputz osoa; ez da ura, alkohola baizik. Pospoloari eragin eta sutan jaurti du bere burua oihuka goiko harmailatik: Gora Euskadi Askatuta!

Joseba Elosegik ekintza ikusgarri horren bidez erakutsi nahi izan zion Francori berak 33 urte lehenago Gernikan ikusitakoa. “Munduak sinetsi egin zuen sarraski hura gorrien ekintza izan zela, gudariona, eta hango gudariak nireak bakarrik ziren, ez zegoen besterik, eta nik badakit ze ahalegin egin genituen jende hari laguntza emateko, baina ez zegoen zer eginik”, azaldu zion ARGIAri ostera. Elosegi, Saseta batailoiko kapitaina zen 1937an eta bertatik bertara ikusi zituen alemaniar hegazkinek eragindako sugarrak; hildako haurtxo bat bere eskuz atera zuen eraikinen hondakinetatik. Geroztik zin egin zuen “arduradunen kontzientzia sutan kiskali arte” eta Gernikako sua bere “erretzaileen begietaraino” eraman arte ez zuela etsiko, 1971n Anai Arteak argitaratutako *Quiero morir por algo* (Zerbaiten alde hil nahi dut) autobiografian azaldu zuenez.

> Joseba Elosegi ispilu bat izan zen askorentzat, askatasunaren alde erakutsitako konpromisoagatik eta ekintzara pasatzeko izandako ausardiagatik

Jauzi egiterakoan ez zuen diktadorea harrapatu –ez baitzen hori bere asmoa– eta polizia baten gainera erori zen. Erreduren eta kolpeen ondorioz 17 egun koman egon zen ospitalean Elosegi. Telebista espainiarra pilota txapelketari jarraipena egiten ari zitzaion, baina egun hartako NO-DOak, frankismoaren doktrinamendu eta propagandarako tresna izaki, irribarre alaiak eta giro lasaia baino ez zituen erakutsi; diferituaren abantailak.

1963an Quang Duc Vietnamgo monje budista auto-immolatuaren irudia mundu osora zabaldu zen: gasolina bidoi bat ondoan duela, sutan ageri da meditazio postura hartuta; Ngo Dinh Diemen gobernuaren politika salatu nahi izan zuen horrela. Hurrengo urteetan munduko gatazka askotan erabili izan zen ekintza mota hori aldarriei oihartzun handiagoa emateko. Zentsura medio, Elosegirena ez zen Hego Euskal Herriko hedabideetan apenas aipatu ere egin, bai ordea atzerrian. *Le Monde*-k esaterako, honela zioen: “Amorru eta desesperazio garrasia berehala itzali zuten estatuburuaren eskoltako poliziek, eta honek zirkinik ere ez zuen egin”. Francorengandik 30 metrora erori zen donostiarra.

EKINTZAILE DESOBEDIENTEA, ORO REN GAINETIK

Urte haietan frankismoa odol hotzean zebilen inoiz baino gehiago, batez ere ETAk 1968an Melitón Manzanas torturatzailea hil zuenetik. Salbuespen egoerekin poliziak sarekadak ugaritu zituen eta, hain justu, talde horretako hamasei kide laster epaitzekoak ziren Burgoseko gerra kontseiluan, 1970eko abenduan.

Itolarria sorrarazten zuen egoera hartan jaurti zuen bere burua Elosegik Anoetako pilotalekuko bigarren harmailatik behera. Baina garbi zuen: "Ez nago bizitzaz nekatuta. Une honetan pentsatzean sufritzen dut; baina badakit hil egingo naizela, hil egin behar dudala", zioen Telesforo Monzoni utzitako eskuizkribu batean. Joseba Elosegi Odriozola ekintzaile desobedientea baitzen, bere betiko alderdi EAJren paralisiaren gainetik.

Gerra ondorenean erbesteratua, Bigarren Mundu Gerran Jose Antonio Agirreren gobernuarentzat inteligentzia zerbitzuak antolatu zituen Frantzian, eta zeregin horretan, klandestinoki egonaldiak egiten zituen Donostian anaiaren dokumentazioa erabilita. 1946ko uztailaren 18an, militar faxisten altxamenduaren hamargarren urteurrenean, ikurrina eskegi zuen hiri hartako Artzain Onaren katedralean, tximistorratzera eskalatu ondoren beste bi lagunekin. Poliziak atzeman eta sei hilabeteko kartzelara kondenatu zuen. 1950ean berriz kartzelaratu zuten denbora labur batez, erresistente katalanekin harremanetan zegoelako.

Elosegi 1964n itzuli zen erbestetik, baina segi zuen frankismoaren kontra ekintzen bidez borrokatzen, 1970ean erakutsi bezala. 1984an, jadanik Madrilen senatari zela –1979tik EAJ ordezkatuz eta 1986tik aurrera EArekin– Itxarkundia gudarien batailoiko ikurrina hartu zuen hango Ejertzitoaren Museotik, gerra botina bezala erakusten baitzuten: "Ez dugu lapurtu, erreskatatu baizik", esango zuen lau egun geroago. Elosegi 1990eko azaroaren 5ean hil zen 74 urte zituela, bihotzekoak emanda.

"EZ BANAIZ HILTZEN, PORROTA LITZATEKE"

Anoeta pilotalekuko ekintzagatik TOP Espainiako Ordena Publikoaren Tribunalak epaitua, zazpi urteko kartzela zigorrera kondenatu zuten propaganda ilegala, polizia bati eta ikusle bati lesioak eragitea eta sutea piztea egotzita. 1971n Jeremy Wallington britainiarrak *The Man at The Window* (Gizona leihoan) dokumentala grabatu zuen ekintza xehetasunez kontatuz, Elosegiren memorietan oinarrituta. "Ez banaiz hiltzen porrota izango litzateke, ez ditut nire bizitzako azken urteak espetxe batean usteltzen igaro nahi, hala balitz, dena alferrik litzateke", dio protagonistak.

2018an herritar talde batek eskaera erregistratu zuen Donostiako Udalean kale bati bere izena jartzeko, kontuan edukita "demokraziaren alde eta frankismoaren kontra lan egin zuen donostiar bat" izan zela. Egun, bere izena darama San Bartolome muinoko begiratoki berriak.

Joseba Elosegi ispilu bat izan zen askorentzat, askatasunaren alde erakutsitako konpromisoagatik eta ekintzara pasatzeko izandako ausardiagatik. Etxamendi eta Larraldek *Joseba Elosegi'ri* disko txikian kantatzen zioten gisan, "... ni hiltzen baniz huntarik, ez otoi egin nigarrik / ez baitut nigar beharrik, ez badut jarraikilerik". ●

ZENTSURA. Pilota txapelketako ekitaldia jasotzen ari zen espainiar telebistan apenas nabaritu zen ezer ez-ohikoa; Polizia frankistak argazkilari ia denak ere atzeman zituen. Baina hala ere, baten batek lortu zuen Joseba Elosegiren irudia zabaltzea, frontoiko zoruan sutan zela.

EKAITZ SANTAZILIA

EUSKARAREN HISTORIA HARRIZKO EUSKARGAZKIETAN

Hilerriak oso interesgarriak dira leku baten historiaz jabetzeko”

Bakoitza bere zoroak bizi duela bezain egia da bakoitzaren zoroak inorenak ere badirela maiz. Etxahun Barkoxekoaren sortetxearen hondakinak eta hilobia, Bonaparte printzearen azken atseden tokia, edota Jon Miranderen lekuak Parisen… ikusgarri dira *Euskargazki.blogariak.net*-en. Ekaitz Santazilia (Iruñea, 1987), hizkuntzalaritzan doktore eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslearena da euskal literaturaren argazkien bloga.

MIEL A. ELUSTONDO ZALDI ERO

Nola hasi zinen *Euskargazki* blogarekin? Zerk jarri zintuen horretara?

Bloga 2006ko azaroan abiatu nuen, badu ia hamabost urte! Euskal Filologia Gasteizen ikasten ari nintzen, eta garbi nuen karreran ikasten genituen pertsonen, obren eta bestelakoen izenak barneratzeko eta testuinguruan paratzeko, hobe zela haiekin lotutako lekuak bertatik bertara ikustea. Tresna nemotekniko bat zen, hasieran. Estakuru bikaina, gainera, herriz herri ibiltzeko: gidabaimena eskuratu berri, eta adin hura, niretzako plan bikaina zen! Bestalde, orduan blogak moda betean zeuden, eta horrelako gauza bat nire ikaskideendako ere baliagarria izan zitekeela pentsatu nuen. Ricardo Gomez irakaslearen FiloBlogia bloga ere akuilu izan nuen sasoi hartan.

> *Jon Miranderen hilobia ez dago ‘Parisen’. Thiaisera joan behar da, apropos, eta hilerri handi batean bilatzen hasi, erreferenzia gutxi batzurekin. Lau ordu behar izan nituen hilobia aurkitzeko”*

Ez dakit datua garrantzizkoa den, baina anekdotikoa besterik ez bada ere, zein izan zenuen lehen argazkia?

Blogeko lehen argazkiak Zuberoakoak dira: Agosti Xahoren jaiotetxea, Matalazena, Etxahun Irurirena... argazkiok bloga abiatu baino lehen eginak nituen, paperean. Eskaneatu, eta igo nituen. Behin baino gehiagotan gertatu zait leku batera argazkia egitera joan eta egun iluna edo euritsua topatzea. Edo erretratatu nahi duzun etxearen atarian-edo koadroa izorratzen dizun autotzar bat aparkaturik egotea, edo argazkia oso urrutitik atera behar izatea, esaterako. Handik denbora batera argazki hura blogean ikusten duzunean, egun hura osorik gogoratzen duzu. Zuberoako argazki horiek, esaterako, gurasoekin egindako bidaia eder batekoak dira. Irudikatu Matalaz eta Etxahun beren etxe aurrean, edo Agosti Xaho haurra Atharratzeko karriketan: hobeki ulertzen duzu beren bizitza eta obra.

Eta Xaho haurra hura Atharratzeko karriketan barna bezala, argazkien karriketan ibili zinen zu, proiektua indartu zeneraino.

Tira, karrera bukatu nuenean aldatu egin behar izan nuen hasierako xedea. “Turismo filologikoa” sustatzen jarraitu nuen, baina presio handirik gabe. Ohartu nintzenerako, ehunka argazki nituen. Blogaren mapa ikustean, zenbat tokitan izan naizen ohartzen zara, baina zenbat

HENRIKE KNÖRR

"Henrike Knörr euskaltzaina irakasle izan nuen Euskal Filologia ikasketak egiten ari nintzela Gasteizen, eta, aldi berean, bloga martxan jarri nuenean. Gasteiz utzi nuen orduko, haren hilobia nire blogean zen. Buruz buru ezagutu nuen eta estimatzen nuen pertsona bat blogaren bidez euskararen historiara iraganaraztea ez zen erraza izan. Henrikek klaseetan behin eta berriz errepikatzen zigun: 'Irakurri eta bidaiatu!' eta uste dut blog hau, hein batean, haren irakaspenaren ondorioa ere badela".

BLOGAREN ONURAK

"Blogak dira, euskarri digitalen artean, iraunkorrenak eta seguruenak informazioa paratzeko. Zeinahi euskarri digitali buruz halakorik esaterik baldin badago, bederen. Sare sozialetan paratzen dena errazago galtzen da. Euskargazkiren eduki guztiak, aldiz, hor daude txukun-txukun bilduta 2006az gero".

hutsune dauden ere agerian gelditzen da. Une batetik aurrera, norabait joan baino lehen, *Euskargazki*-rako interesgarria den zerbait egon zitekeen ala ez begiratzen hasi nintzen eta helburua, beraz, mapa puntuz betetzea izan zen.

Horretan zara orain, hortaz, Euskal Herriko mapa *euskargazki* puntuz betetzen...

Helburuak zehatzagoak dira orain, bai, eta azken urteetako sarreretan ere antzematen da hori. Batetik, argazki bakarra baino, argazki bat baino gehiago sartzen dut, baita protagonisten irudiak ere. Testuak gehixeago lantzen ditut, baina sobera luzatu gabe. Bloga bisitatzen duenak begi kolpe batez jakin behar du zertaz ari garen. Gero, sakondu nahi badu, baliabideak ere eskaintzen ditut. Bestalde, azkenaldian, euskararen historia "txikiari" ere eman diot garrantzia: euskara landu duten egile txikiak ere ekarri nahi izan ditut blogera. Nafarrak dira, bereziki. Ezarian-ezarian epigrafiak ere pisu handia hartu du. Harri zaharretan, hilobietan, etxeen atalburuetan-eta idatzitako euskarazko pasarteak ere argazkietan bildu ditut. Inoiz leporatu izan didate, umorez, bloga oso "ekialdezalea" dela. Eta zer esango dut, bada, nik, arrazoi dutela besterik: nafarra naiz!

Argazkiaren koadrotik atera ezinik zabiltzan balizko etxe atariko ibilgailu oker aparkatua beste eragozpenik izango zenuen, ala?

Askotan leku bateko biztanleek ere ez dute ezagutzen herriko etxe, hilobi edo delako gune batek duen historia eta interesez entzuten dute. Jendea, oro har, oso atsegina da. Lehengo batean, oraindik orain, Patxi Ondarra euskaltzainaren jaiotetxeari argazkia egitekotan ginela Bakaikun, meza ondorean herriko emakume bati etxearen berri galdetu eta bertaraino lagunduko zigula, ondoan bizi zela-eta! Gurekin autoan igo eta haraxe eraman gintuen. Kafea ere eskaini zigun!

> ***"Blogean aberatsak eta pobreak agertzen dira; jende boteretsua eta umila, eraikin ederrak eta apalak; gizonak eta emakumeak, jende ortodoxoa eta heterodoxoa..."***

Miranderen hilobia ere *Euskargazkian* duzu...

Parisen datzala diote, baina hura ez dago "Parisen". Thiaisera joan behar da, apropos, eta hilerri handi batean bilatzen hasi, erreferenzia gutxi batzurekin. Esango dizut: lau ordu behar izan nituen Jon Miranderen hilobia aurkitzeko... Bestalde, blogari esker, bestela sekula bisitatuko ez nituzkeen lekuak bisitatu ditut. Edo oso jende gutxi egon izan den lekuetan izan naiz. Adibidez, nor egon da Amsterdamen Watergraafsmeer auzoan? Bada, ni neu, beste bi lagunekin, De Rijk hizkuntzalariaren bizitokiari argazkia egiten. Auzoak ez du deus berezirik, baina De Rijk zenaren etxeko leihoan ikurrina ikustea deigarria izan zen.

Irudiaren kalitatea lehenesten ez baduzu ere, apain eta dotore ageri dituzu argazkiak. Dena den, zein informazio iturri ibili ohi dituzu tokion berri izan ahal izateko?

Zorionez, orain interneten informazio asko dago, eta Google maps ere tresna bikaina da lekuak bilatzeko. Bidegileak

bildumako biografiak oso baliagarriak zaizkit, baita Euskaltzaindiak *Euskera* agerkarian argitaratutako biografiak eta txostenak ere, edo Xamarren lanak, Joxemiel Bidador zenak han eta hemen argitara emandako artikuluak, han-hemengo monografia eta webguneak...

Euskal literaturaren historia bat ere izan liteke zure bloga.
Literaturarena ez ezik, euskararena, oro har. Uste dut blogaren edukiak interesgarriak izan daitezkeela publiko zabal batendako. Euskal filologoendako bai, jakina, baina baita turismoa egin nahi duen jendearendako ere: jende askorendako oharkabean pasatzen diren lekuak mapan jartzen dituzu horrela, eta herrietako ondarea balioesten. Gainera, argazkiak berak erabilgarriak izatea nahi nuke, jendeak nahi duen bezala balia ditzan, baimenik gabe. Iturria aipatzea aski da. Irakaskuntzarako egokiak dira, bistan dena, baita ikasleen edo ikertzaileen lanetan txertatzeko ere, izan tokian tokiko webguneetan, edota argazki bildumetan.

Zer ikasi duzu argazkion bidez? Batetik bestera ibili zara argazkiak aitzakia, ibilian, bidean eta bidaian...
Eta bidaiatuz, edozein dela kausa, beti ikasten da. Nik leku mordo bat ezagutu ditut, eta zerbaiten bila zabiltzanean, beste mila gauza ere ikusten dituzu. Jendea ezagutzen duzu... Hori niretako gelditzen da. Baina blogaren bidez euskararen historiaren balorazio bat egin beharko banu, bi adjektibo baliatuko nituzke: heterogeneoa, eta handia. Blogean aberatsak eta pobreak agertzen dira; jende boteretsua eta umila, eraikin ederrak eta apalak; gizonak eta emakumeak, jende ortodoxoa eta heterodoxoa...

> *“Uste dut blogaren edukiak interesgarriak izan daitezkeela publiko zabal batendako. Euskal filologoendako bai, jakina, baina baita turismoa egin nahi duen jendearendako ere”*

Denetarik, alegia.
Eta, beharrik, euskarak denetarik izan duen! Handia dela diot, gainera, sekula ez dudalako bloga bukatutzat emanen! Beti topatzen ditut sareratzeko interesgarriak izan daitezkeen leku berriak, dela atzerrian, dela etxetik gertu. Zenbat aldiz pasatu izan naizen Iruñean Alexander Tapia Perurena idazlearen edo Arturo Campionen etxe aurretik, jakin gabe hura zela haien etxea!

Euskal literaturaren zaletasuna da zurea, ororen gainetik, argazki zaletasuna baino gehiago?
Nire kasuan, dudarik gabe: euskara da zaletasuna. Argazkigintza tresna baino ez da, eta argazkien kalitateak agerian uzten du hori. Blogak gune horiek zehatz-mehatz identifikatzen dituenez, argazkilari trebe direnei ere lana errazten die. Hortxe amaitzen da argazkilaritzari egin diezaiokedan ekarpena. Hasieran paperean nituenak eskaneatu behar izaten nituen. Gero, kamera digital amateur bat erabiltzen hasi nintzen. Orain, gehienetan, sakelakoa darabilt. Hala ere, lehen, argazki bakarra igotzen nuen eta orain, aldiz, saiatzen naiz argazki bat baino gehiago jartzen sarean.

Hamabost urte honetan bildutakoen artean izango dira, bada, gogoan josita gelditu zaizkizunak, ala?
Gogoan dut, esate baterako, Bonaparte printzearen hilobiaren bila Londres ondoko Kensal Green auzoraino joan ginenekoa. St Mary hilerrira, hain zuzen. Hilerri ederra da, endekapen puntu batekin, eta Bonaparteren hilobia ere ez dago bereziki ongi zaindua. Bila eta bila ibili ondoren, aurkitu eta argazkia egitera gindoazela, zaindaria atera zitzaigun: argazkiak egitea debeku zela, ez baginen hildakoaren senideak. Ordutik Bonaparte dut deitura, zaindari harentzat.

Kar, kar... Bikaina. Ekaitz Bonaparte!
Bai! Kar, kar... Hilerriak, bestalde, oso interesgarriak dira leku baten historiaz jabetzeko. Hilobiak nolakoak diren, zein deitura ageri diren... Iruñekotik paseatzea bereziki maite dut: estetikoki erakargarria da eta beti aurkitzen dut *Euskargazki*-rako aproposa den hilobi berriren bat, eta hala ez bada, aspaldiko ezagunekin, bederen, egiten duzu topo: biziak dira batzuetan, hilak, berriz, besteetan. ●

Nilometroak ekonomia aurreikusteko

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Erromatar Inperioa, K.o. I. mendea. Plinio Zaharrak (23-79) zera idatzi zuen *Naturalis Historia* lanaren bosgarren liburukian: "Ur goraldia 12 ukondokoa denean gosea dago; 13koa bada, urritasuna dago; 14koak poza dakar; 15ekoak, segurtasuna, eta 16koak, joritasuna, gozamena eta plazera". Nilo ibaiaren uhaldiez ari zen, zehazki, egun *nilometro* esaten zaien neurgailuen emaitzez.

Nilometroak Nilo ibaiaren ibilgu naturaletik hurbil eraikitzen zituzten era askotako eskalak ziren: eraikin konplexuak ziren batzuk, beste batzuk putzu soilak edo harrian zulatutako eskailerak. Urak ekainean hasten ziren gora egiten eta iraila hasiera arte nilometroetako mailak gainditzen joaten zen. Modu horretan, neurtzen zen urteko uhaldiaren bolumena.

Antzinako Egipton, basamortua zeharkatzen duen Nilo ibaia funtsezkoa zen nekazaritzan eta, beraz, ekonomian. Uzta oparoa nahi bazuten, muturreraino aprobetxatu behar zituzten ibaiaren urak eta nilometroek uzta kaxkarra edo bikaina izango zen aurreikusten eta, beraz, ekonomia aurreikusten laguntzen zien. Besteak beste, nekazariek urtero ordaindu behar zituzten zergak nilometroen emaitzaren arabera kalkulatzen ziren. Datuak jaso eta interpretatzeaz tenpluetako sazerdoteak arduratzen ziren, eremu espiritualaz harago, botere politiko eta ekonomiko handia zuten seinale.

NARMER FARAOIAREN TENPLUKO MARGOLAN BATEN FAKSIMILA, FARAOIA ETA BERE FAMILIA NILO IBAIAK EMATEN DUENA BILTZEN ERAKUSTEN DUENA.

NINA DE GARIS DAVIES

Ur goraldia eskasak, Pliniok jaso bezala, gosea eragingo zuen, ura ibaitik urrunen zeuden labore lurretara ez baitzen iritsiko. Baina uhaldi handiegiak ere ez ziren komeni; ibaiak dikeak eta kanalak suntsituko zituen eta ura atxikitzeko sistemak funtzionatu ezean, ezin uzta onik lortu.

Aswango bigarren presa eraiki zutenetik (1959-1970), hark erregulatzen du Niloren emaria eta inork ez die begiratzen nilometroetako eskailera mailei ekonomiaren aurreikuspena egiteko". ●



GOOGLE

Fabricius, Rosetta harri berria

Googlek duela bi urte proiektu bat jarri zuen martxan, hieroglifikoak dekodetzen dituen Fabricius aplikazioa sortzeko, eta berriki erabiltzaile guztien eskura jarri du doan. Adituek lehen analogikoki bilaketa astunak egin behar zituzten hieroglifikoen esanahia jakiteko, eta orain aplikazioak 15-20 minututan egiten du itzulpena, hieroglifikoaren argazkia kalitatezkoa bada behintzat. Horretarako adimen artifiziala erabiltzen du aplikazioak, hau da, makinek ikasteko duten ahalmena. Adituak ez direnentzat, lan egiteko atalaz gain, ikasteko eta jolasteko aukerak ere ematen ditu.

Aplikazioari Georg Fabricius (1516-1571) epigrafiaren aitaren omenez jarri diote izena, eta oraingoz soilik ingelesez eta arabieraz erabil badaiteke ere, aurrerago hizkuntza gehiago sartzeko asmoa dute. ●

300DIK GORA KAZETARIK SINATUTAKO MANIFESTUA

Jaurlaritzak euskararekin duen zorra

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Euskarazko kazetaritza babesten dugu. Euskarazko kazetaritza egiten dugu. Euskarazko kazetaritza aldarrikatzen dugu eta egiten dugu. Baina oraindik ere zer eskatzen du euskarazko kazetaritza lan hori egiteak? Beste edozein herrialdetako kazetarik bezala, hemen ere beste hainbat hizkuntzatako iturriak begiratzen dira eta interesgarri bazaigu gure hizkuntzara ekartzen dugu. Baina zer gertatzen da hemengo informazioarekin? Nola ematen zaie kazetariei informazioa Euskal Herrian?

325 kazetari euskaldunek sinatutako manifestu bat aurkeztu dute iragan astean Donostian Eusko Jaurlaritzari eskaera garbia eginez: "Euskaraz hitz egingo duen Jaurlaritza". Dio, "Eusko Legebiltzarrak 1982an Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizko Legea onartu eta 38 urtera, datorren Eusko Jaurlaritza osatu behar duen arduradun nagusiari eskatzen diogu euskaraz egiten duten sailburu eta arduradunak izenda ditzala".

Eta irakurleren batek esan dezake, "baina nik entzuten ditut Murga eta Uriarte euskaraz!". Kalitatea ere azpimarratu dute Maite Artola Euskadi irratiko esatariak eta Martxelo Otamendi *Berria*ko zuzendariak manifestua aurkeztu dutenean: "Ez dira aski euskarazko adierazpen irakurriak edota ardura gutxiagoko ordezkarien euskarazko bozeramaileta behartuak. Ez dira aski informazioa euskarazko komunikabideetatik jasotzen duten herritarrentzat".

"Informazioa zorrotz, egoki eta zuzen ematea da komunikazioan ari den profesional ororen egitekoa. Baita euskaraz dihardugun profesionalona ere", azaltzen du manifestuak, eta zera nabarmentzen du: "Herritar guztion ardura da euskara normalizazio osora eramatea, baina zeregin horretan lehen mailako erantzukizuna daukate erakunde publikoek". Kazetaritza oinarrizko jarduera dela agerian geratu den une historiko hauetan aldarrikatzen dute euskaraz "behar" dutela informazioa, "azken orduko aldaketa eta neurriez informatzeko, ezusteko gertakarien ondoko ekinbide ofizialak jakinarazteko eta hartzen diren erabakien berri gizarteari emateko".

Maialen Lujanbiok behin esan zuen "euskaratik eta euskaraz". Bidea dago oraindik egiteko.

Manifestua sinatu nahi duten kazetariek oraindik aukera zabalik dute, sailburueuskalduna@gmail.com helbidera izen-abizenak bidalita. ●

ONGI ETORRI KOMUNITATERA!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan Argia Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko.
Ongi etorri denei, komunitatera!

"(In)komunikazioaren aroan, ezinbestekoa da perspektiba langilea, kritikoa eta herritarrengatik herritarrentzako sortzen den kalitatezko komunikabide hau. Zorionak egiten duzuen lan finagatik!".

Bilbiko Lucia

"Euskararen alde egiten duen ekarpenagatik".

Durangoko Rosa Mari

"Oso interesgarriak iruditzen zaizkit zuen artikuluak. Ikuspegi berritzaile eta sortzailea nabari da. Horrelako informazio freskua eta argia behar da (orokorrean hedatzen den desinformazioaren aurrean)..."

Donostiako Patxi

"Euskaltzalea naizelako eta euskarazko informazioak eta orotariko edukiak eskura eduki nahi ditudalako".

Bilboko Oskar

IRATIKO GAROMENEKO ARRANOAREN AROA

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Garomena ikasi dugu guk etxean. Pako Aristik *garomana* erabili izan du, eta hiztegietan garo-sail, garo-mendi, garo-leku, garebana, garotegi, garadi, iradi, irati, iraeta, ira-baso, ira-leku, ira-arte, ira-larre, ihatsail, ira-sail, ira-zelai, iratze-sail, iratze-leku, iraztor, iraztorri, iraztor-leku, iraztordi, irastortza, iratzeta, iratzoki, iratzedi, iratze-toki, iraztoi, iratza, irebana, idadui eta ideleku behintzat badira.

Garoila edo iraila hasia da, eta garo ebakitzeari ekin beharko diogu. Irailean sartzeak zilegitzen du garo ebakitzea: "San Gil iratze-ebakitzea zil". Garoa nekazaritza lehengai garrantzitsua da. Batez ere aziendaren azpitarako, ohatzeetarako. Garoa inaurkin gozoa da. Ganadua gustura etzango da eta haren gorotzarekin nahastuta ateratakoan luar edo samats ona egiteko gaia da. Era berean zenbait mineraletan aberatsa da eta ongarriketa ederki osatuko du. Txorakeria gutxi garai batean garoarekin! Herri-mendietako garomenak zaindu egiten ziren; subastan ematen ziren eta iraila baino lehen ezin ziren ebaki. Haren aurretik ebakiz gero landare baliotsua kaltetu egiten da. Nekazaritza iraunkorraren oinarria aziendaren zaintza eta erabilera egokitik abiatu eta bere jaten-hondakin zikloa landareen ekoizpenean mihiztatzea eta txertatzea da. Bide luze horretan garoa axolazko katebegia da; Euskal Herriko isuri atlantiarrean behintzat. Hor ditu garoak bere paisaia eta bere kultura. Garomenak zaindu egin ditugu, eta garoak geu zaindu gaitu; eman eta hartu.

Gure garoa bat baldin bada hori iratze arrunta da, *Pteridium aquilinum*. Arranoaren garoa dela esan dezakegu. Hegan doan arranoaren itxura du eta izenak horixe dio: *Pteridium* grekoz garoa dioen *pteris* hitzetik dator, eta era berean, hori *pteron* hitzetik dator, hegala edo luma itxurakoa esan nahi duenetik. *Aquilinum* hitzak arranoaren tankerakoa esan nahi du. Hemen beraz arrano garoa. Gure paisaietako garo arruntena den horri parez pare begiratzen badiozu, ikusiko duzu arranoaren hegal hedatua.

Eta zergatik deitu izan ote zaio arranoarena? Eta ez beste edozein hegaztirena? Hegalaren antzak ez du arranoaz hitz egiten... Bai ordea gure buruak. Taxonomia edo bizidunak sailkatzeko zientzia sortu zuenak, Lineok, eman zion arranoaren izena iratze arruntari. 1755ean adierazi zuen garo horren erroa moztuz gero ebakiduran arrano baten irudia ikusten dela. Erdi Aroan, Erasmo Rotterdamgoa bezalako jakintsuek, ebakidura horretan buru biko arranoa ikusten zuten. Egungo etnobotanikariek frondaren edo garoaren hostajearen forman hegala ikusten dute, eta lehengoei jarraituz arranoarena omen da. Zergatik arranoa? Buru biko arranoa? Mirestutako hegaztia izan da arranoa, gure imajinarioan, garrantzitsua eta beldurgarria, lurraren kulturan garoa bezala. Garoa beldurgarria ere bada, pozoitsua, inolako aziendak jaten ez duena. Euskaldunok ez diogu jarri izen hori, bestela gure itsasertzeko paduratan eta errioetan, garo lanen irailean arrano arrantzalea Afrika alderantz igarotzen delako izendatuko genuke...

Irailean hurbildu Urdaibai edo antzekoetara eta garomenean eseri eta gozatu arranoaren arrantzarekin. ●

LEKITTO BEDARRA

BARAZKI FRESKOAK ELIKAGAIEN BANAKETA SAREETAN

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

2013an jarri zuten martxan Lekeitioko hainbat lagunek Lekitto Bedarra proiektua. "Espekulazio arloan proiektu asko zeuden hemen, eta horri aurre egiteko alternatiba moduan sortu genuen taldea", azaldu du Julian Arrate kideak. Lekeition ortugintza tradizio handia zegoenez, herritarren ortua martxan jarri eta jakintzak elkarbanatzeko espazio bat egitea zen asmoa. Urteotan auzolanean funtzionatu dute, eta orain, koronabirusak eragindako egoeraren aurrean egitasmo berri bat jarri dute martxan: barazkiak ekoizten ari dira Lekeitioko laguntza sareen bidez behar gehien dutenei helarazteko.

110 KILO BARAZKI BANATUAK

Hamar bat lagun dabiltza Lekitto Bedarra proiektuaren bueltan. Orain arte, herritarren ortuan ekoizten zituzten barazkiak auzolanean aritu zirenen artean banatzen zituzten, edota laguntza eskaintzen zieten inguruko komertzioei. Baina koronabirusak eragindako egoeraren aurrean Lekittarrok Zaindu sarea martxan jarri zen herrian, eta ortuko barazki freskoak beste bide batetik banatu zitzaketela bururatu zitzaien taldekideei. "Herrian sortu zen laguntza sare horri gure ekarpena nola egin geniezaiokeen pentsatzen jarri ginen, eta bururatu zitzaigun ortuan ekoizten dugun generoa beraiei ematea", dio Arratek.

Elikagaien bankua Gurutze Gorriak kudeatzen duenez, haiei bideratu zieten baratzetik ateratzen zutena. "Elikagaien banaketetan batez ere kontserbak, pastak eta horrelakoak izaten dira, eta ez da genero freskorik izaten. Bertako arduradunek esan ziguten oso ongi zetorkiela gure barazkiak jasotzea, jendeak gauza freskoak asko eskertzen dituelako". Herriko Ama Domingotarren elkarteak ere elikagaien banaketa egiten zuela jakinda, beraien bidez ere hasi ziren ortuko barazkiak banatzen. Bi elkarteei hamaika alditan egin dizkiete ekarpenak, aldi bakoitzean hamar kiloko saskiak helaraziz: guztira 110 bat kilo barazki fresko banatu dituzte, beraz.

ELKARTASUNERAKO LURRA SALGAI

Arratek azaldu duenez, proiektuko kideen konpromiso maila handitu egin da egitasmo hau martxan jartzerakoan. Izan ere, lehenago nahiko modu librean aritzen ziren, baina orain ekoizten ez badute ezin diote elkarteekin hartutako konpromisoari aurre egin. Horregatik, astean bi aldiz behintzat elkartzen hasi dira landareak ereiteko eta landatzeko.

Jarduna handitzearekin batera, laneko erremintak eta bestelakoak gordetzeko leku beharrean ikusi dira taldeko kideak azken hilabeteotan, eta txabolatxo bat eraikitzeko lanean dabiltza orain: aldapan zegoen oinarria leundu zuten auzolanean lehenik, eta orain Udalak zementua bota du. Txabola eraikitzeko diru bilketa kanpaina abiatu dute. Horretarako, auzolanetan atera duten lurra 20 kiloko zakuetan jarri dute salgai: elkartasunerako lurra, kanpainan diotenez eta argazkian ikus daitekeenez. ●

Herria eliteen aurka. Edo beharbada errealitate konplexuagoa, historiaren barrunbeetan sartzen zarenean. Horrela islatzen dute Éric Vuillarden liburuek. 2017an Frantziako letren saririk handiena, Goncourt saria jaso zuen *L'Ordre du jour* liburuarengatik.

ENRIC BONET / EL SALTO **JEAN-LUC BERTINI**

Elkarrizketa hau *El Salto* hedabideak argitaratu du eta Creative Commons lizentziari esker ekarri dugu.

Nekazariak, artisauak, merkatariak, prostitutak, monje errebeldeak.... Éric Vuillarden (Lyon, 1968) kontakizunen orrialdeak betetzen ditu herri plural eta heterogeneoak. Baita nazismoa edo alemaniar printzeen hipokrisia katapultatu zuten elite ekonomikoen tramek ere, negoziatu nahi zutela esaten XVI. mendeko nekazarien matxinadak zapuztu bitartean. Herria eliteen aurka. Errealitate konplexuagoa, beharbada, historiaren barrunbeetan sartzen zarenean. Horrela islatzen dute Vuillarden liburuek, 2017an Goncourt saria jaso zuenak, Frantziako letren saririk handiena, *L'Ordre du jour* (Actes Sud, 2017) lanarekin.

Nazismoaren gorakadari –*L'Ordre du jour*–, Frantziako Iraultzari –*14 juillet* (Actes Sud, 2016)– edo Lehen Mundu Gerrari –*La Bataille d'Occident* (Actes Sud, 2012)– buruzko kontakizun historiko labur eta zorrotz batzuen bidez, idazle frantziar honek iraganari buruzko begirada zorrotza eta geografia politiko iradokitzailea garatu ditu. Bere kontakizun historikoek etengabe galdetzen diote irakurleari gaur egungo arazoez, hala nola eliteen arduragabekeriaz edo kategoria marxistekin bat ez datozen herri matxinadez.

Jaka Horien mugimendua sortu eta gutxira, 2019ko hasieran *La guerre des pauvres* (Pobreen gerra) argitaratu zuen, XVI. mendeko Alemaniako nekazarien matxinadei buruz. Parisko ekialdeko liburu-saltzaile baten pisuan *El Salto* hartu zuen ordubetez urtarril honetan. Elkarrizketa luze batean, bere lanari eta egungo borroka sozialei buruz hausnartu zuen.

Zure azken eleberriak *La guerre des pauvres* du izena eta Thomas Müntzerrek zuzendutako XVI. mendeko Alemaniako nekazarien eta protestanteen matxinadak kontatzen ditu. Zergatik interesatzen zaizu predikari iraultzaile hau?

Kasu horretan inspiratu nintzen duela urte batzuk, Frantzian lehen espetxe pribatuak ireki zituztenean, jazotako gertaera batean. Poitierseko herri batean, herrialdearen erdialdean, lehen espetxeetako baten inaugurazioan, atxilotuen trukea behe-lainoaren pean gertatu zen eta, egun horretan, preso batzuen partetik istiluak izan ziren, Bouygues telekomunikazio-enpresaren beirateak hautsi baitzituzten [zentro pribatu horiek kudeatzeaz arduratzen zena], eta grafiti bat ere egin zuten latinez Poitierseko bataiategian. Bertan, "*Omnia sunt comunia*" (dena da amankomuna) idatzia agertzen zen, Müntzerren esaldi enblematikoetako bat.

> **"Thomas Müntzerrek hasieran erreforma protestantearen postulatu ofizialak hartu zituen, baina bere pentsamendua aldatu egin zen auzo pobreenak bisitatu ondoren"**

Zure liburuan, Alemaniako XVI. mendeko matxinada horiek "gizon arruntaren altxamendu" gisa deskribatzen dituzu.

Beti ikusten dut historia orainean oinarrituta, eta XVI. mendeko nekazarien matxinaden kasuan, deigarria egin zitzaidan nekazariak ez ezik artisauak ere matxinatu zirela, merkatari xumeak, herri askotarikoa baitzen. Nekazarien matxinada deitzen diegu, Friedrich Engelsek XIX. mendearen erdialdean garai hartako pentsamendu marxistaren arabera erabili zuen esamoldea delako. Baina, egia esan, matxinada protestante hauek hobekien izendatzen dituen terminoa "gizaki arruntaren altxamendua" da. Adierazpen horrek indar handia du orainaldian. Mugimendu oso heterogeneoak izan ziren, eta gizarte-konfigurazioa izendatzea askoz ere zailagoa zen nekazariak edo proletarioak balira baino.

Askotariko herri bat, zure aurreko *14 juillet* liburuko protagonista ere badena, Bastilla hartzeari buruz diharduena.

Bai, eta herri plural hauek oihartzun handia dute orainarekin. Frantzian ikusi dugu, Jaka Horien mugimenduaren gizarte-osaera heterogeneoarekin. Iraganean, langileak mobilizatzen zirenean, sindikatuak ordezkatzen zituzten instantzien bidez antolatutako langile-klase gisa mobilizatzen ziren. Baina gaur egun, neurri handi batean, hori desegin egin da, eta horrek iradokitzailea egiten digu "gizaki arruntaren altxamendua" esapidea.

Zein dira gaur egungo herrien eta XVI. mendeko matxinaden protagonista izan zirenen arteko puntu komunak?

XVI. mendeko matxinadek gaur egungo kontestazio mugimenduekin partekatzen duten funtsezko elementu bat da boterearen ideologia erabiltzea matxinatzeko. Müntzerrek eta berarekin zeuden nekazariek eskura zituzten tresna ideologikoak erabili zituzten, hau da, kristautasuna. Bibliaren printzipioak erabili zituzten Elizak haietaz egiten zuen erabileraren eta nobleei ematen zizkieten pribilegioen aurka egiteko. Aita Santuari eta Alemaniako printzeei gogorarazi zieten kristautasun gisa aldarrikatzen zutena ez zetorrela bat ebanjelioek esaten zutenarekin. Gaur egun antzeko zerbait gertatzen da. Tradizio marxista ez dagoenez masen esku, hauek Frantziako Iraultzara eta gure gizarteen oinarrizko printzipio liberaletara jotzen dute. Adibidez, Jaka Horiek 1789ko Gizon eta Herritarren Eskubideen Adierazpena ekarri zuten gogora. Zehazki, 6. artikuluan ezartzen zuen herriak zuzenean parte hartzen duela legeak egiten.

Zer adierazten du Frantziako Iraultzak Frantzian eta gaur egungo Europan?

Jaka Horiek Frantziako Iraultzaren iruditeria berreskuratu eta irudikatu zuten. Esloganetan eta jantzietan egon zen, adibidez, frigiar txanoetan. Gainera, 1789ko Iraultzaren legatuaren

“Beti hartu behar da serio bere ideiengatik hiltzen den norbait”

ÉRIC VUILLARD
IDAZLEA

indarretako bat da mundu mailako gertaera izan zela. Thomas Jefferson Parisen zegoen orduan, eta berehala konturatu zen Bastilla hartzearen garrantziaz. Orduan, hizkera politiko berri bat gauzatu zuen, askatasuna eta berdintasuna. Gaur egungo munduan irradiatzen duen egia. Hala ikusi genuen, adibidez, Arabiar Iraultzekin, zeinetan askatasun- eta berdintasun-balio horiek aldarrikatu ziren.

Historian zehar, Maximilien Robespierrek bezala berdintasun-irrika handiena izan zuten frantziar iraultzaile haiek deabrutzat hartu ziren etengabe. 1989an, 200. urteurrena ospatu zenean, Iraultzak bere ideologia eraldatzailea galdu eta neutralizatutako objektu politikoa zirudien. Harritu egin al zintuen Jaka Horiek nola berjabetu zuten ikusteak?

Ez, ez ninduen harritu. Beti pentsatu izan dut ideia jakin batzuk ezartzen direnean nekez desagerraraz daitezkeela. Jendeari askeak eta berdinak direla esan zaionean, agian liberalek gehitu ahal izango dute askeak eta berdinak direla eskubideetan, baina herria esaldiaren lehen zatiarekin geratu da. Hau da, gizaki guztiak aske eta berdin jaiotzen dira. Formula hau oso berritzailea izan zen, eta nekez ahantz daiteke, bere orokortasuna gorabehera, edo, hobeto esanda, bere orokortasunari esker. Limurtzailea da, bai bere orokortasunagatik, bai bere izaera naïfagatik; hau da, etorkizunarekiko duen baikortasunagatik. Oraindik ibilbide luzea duela uste dut.

***14 juillet*-en arrakasta duen iraultza kontatzen duzun bitartean, *La guerre des pauvres* liburuan nekazari matxinoak jabaldu egiten dituzte eta Müntzerri burua mozten diote. Zer interesatzen zaizu huts egindako matxinada horretatik?**

Müntzerren porrotaren alderdi interesgarri bat da erakusten duela negoziazioaren historia izugarri bat. Arazo sozialak sortzen direnean, beti esaten da negoziatuz konpondu behar direla, lagunen arteko liskarrekin egiten den bezala, horiek hitz eginez konpontzen saiatzen baikara. Baina bizitza pribatuaren eta gizartearen artean alde nabarmena dago: ez dituzte interes berak defendatzen. Klase sozialak existitzen dira. Müntzerren kasuan, ikusten dugu kondeak eta aristokrazia oso modu hipokritan aritu zirela negoziatzen, alde batetik hitz eginez eta bestetik nekazarien tropak sarraskituz. Iraganaren abantaila da gauzak argiagoak direla. 2015ean, Yanis Varoufakis Greziako Ekonomia ministroari ez zioten apunteak hartzen uzten Eurotaldeko negoziazio neketsuetan. Müntzerren historiak, berriz, negoziazioa borrokarako arma dela erakusten digu. Horrekin ez dut esan nahi negoziatu behar ez denik, baina jakin behar dugu, ekimena goikoek daramatenean, tranpa bat dela.

Müntzerren kasuan, idazle gisa bere garaiko pobrezia, sufrimendua eta haserre soziala deskribatzeko duen gaitasuna ere azpimarratzen duzu.

Müntzer XVI. mendeko predikari eta idazlea izan zen. Ez da ohikoa intelektual batek herriaren kausa babestea berak egin zuen bezain ziur eta horregatik heriotza bezalako prezio garestia ordaintzea. Beti hartu behar da serio bere ideiengatik hiltzen den norbait. Gainera, meritua du behekoen errealitateaz busti izana, Luterok egin ez bezala, zeinak bizimodu erosoagoa izan zuen eta erreforma protestantearen alde egin bazuen, izan zen berak sortutako teologia zelako. Müntzerrek hasieran erreforma protestantearen postulatu ofizialak hartu zituen, baina bere pentsamendua aldatu egin zen predikari ibiltari gisa aritu ondoren. Orduan auzo pobreenak bisitatu zituen eta artisauen, merkatari txikien edo nekazarien bizitzaz blaitu zen. Ez da oso ohikoa intelektual batek bere pentsamenduaren oinarri nagusia beste pertsona batzuengandik ateratzea, eta are gutxiago bera bezain irakurriak eta jakintsuak ez direnengandik.

> **"Eskuin muturreko alderdi batzuk egotea ez da berritasuna, kezkagarriagoa da gainerako buruzagiak segurtasunarekin obsesionatuta egotea eta askatasun publikoak alde batera uztea"**

***La guerre des pauvres* lanaren beste alderdi interesgarri bat da herria traizionatua sentitzen dela kleroaren eta aristokraziaren aldetik. Zein da XVI. mendeko matxinadetan eliteek traizionatu zituztela sentitzearen sentimenduak duen garrantzia?**

Traizio-sentimendu hori inprenta eta literatura modernoaren agerpenak bultzatu zuen. Inprentaren eta protestantismoaren arteko elkarketak liburua asmatu zuen, objektu emantzipatzaile nagusia, eta subjektu modernoaren azaleratzea erraztu zuen. Pandora kutxa ireki zuen. Ordutik aurrera, Müntzer eta bere artisau taldea, eta pertsona xumeak ere, irakurtzeko gai dira. Beren burua teologotzat hartzen dute, apaiztegian egondakoen maila berean.

Eliteek traizionatu dituztela sentitzea egungo kontestazio-mugimenduetan ere agertzen da.

Bai, gaur egun nolabaiteko adostasuna dago ondokoan: jende arruntak bakarrik errespetatu behar dituela gure gizarteen oinarrizko printzipioak. Herritar gehienek lege eta printzipio konstituzionalak bete behar dituzte eta elite politiko eta ekonomikoek berriz, traizionatu egiten dituzte. Adibidez, Frantzian larrialdi-egoera ezarri zen bi urtez [2015 eta 2017 urteen artean], eta horrek aukera ematen zuen pertsona bat etxean atxikitzeko erabaki administratibo baten bidez, epaile baten esku-hartzerik gabe. Hori guztia zuzenbidearen eta gure demokraziaren oinarrizko printzipioekin kontraesanean dago.

Ctxt webguneak 2018an egin zizun elkarrizketa batean esan zenuenez, "orain aberatsek ez dute herriaren beharrik". Izan ere, Jaka Horien aldarrikapen nagusietako bat "existitzen gara" esatea izan zen. Badago tentsiorik klase herrikoien ikusezintasunaren eta aitortza-eskaeraren artean?

Lehen Mundu Gerrari buruzko *La Bataille d'Occident* nire liburua lotuta dago herriaren ikusgarritasunaren eta ikusezintasunaren arteko tentsio horrekin. XX. mendearen hasieran, jende xumeak erabat ikusezina izan behar zuen, lau urtez lubakietara bota ahal izateko. Kontakizun horretan, 24.000 pertsona baino gehiago hil ziren egun bakarreko bataila bati buruz ari naiz. Historiako borroka militar garrantzitsuenekin parekatu daiteke kopuru hori, baina bataila horrek ez zuen izenik ere jaso. Beste edozein egun bezalakoa izan zen. Herriaren ikusezintasun horrek aldaketa kopernikarra jasango du Lehen Mundu Gerratik aurrera. *La Bataille d'Occident* idazteko ideia Gerra Handiko hilerri bat bisitatu ondoren etorri

zitzaidan. Nire emaztearekin leku horretan paseatuz asko hunkitu ginen. Orduan, hausnartu nuen zergatik hunkitu nintzen hainbeste bisita horretan, eta idazten ari nintzela konturatu nintzen gizarte-desberdintasunekin lotuta zegoela. Lehen Mundu Gerrako hilerri bat bisitatzeko esperientzia bakarra da, hilobi guztiak berdinak baitira. Baita hildakoen izenak idazteko erabili zuten kaligrafia ere. Giza berdintasuna materian txertatuta dago. Aberatsak edo pobreak izan, graduazio militarrarekin edo gabe, soldadu guztiak baldintza berdinetan lurperatu zituzten. Baina zein izan zen berdintasun horren prezioa? 10 milioi hildako.

Lehen Mundu Gerrak eragin handia izan zuen literaturaren historian ere.
Gatazka horrek intelektualek masekin zuten harremana aldatu zuen. 1917ko Errusiako Gerra Handiaren eta Iraultzaren ondoren, jada ezin zen modu berean idazten jarraitu. Idazleen jatorri diren klase sozialak aldatu egiten dira. Marcel Proust, errentetatik bizi zen burgesa, mundu zaharreko azken ordezkaria izango litzateke. Lehen Mundu Gerraren eta heriotza masiboaren esperientziaren ondoren, frontean borrokatu zuten nekazari eta langile berberak izango dira gerrari buruz idazten jardungo dutenak. Louis-Ferdinand Céline, Jean Giono edo Erich Maria Remarqueren literatura zuzenean lubakietatik sortzen da. Guztiek ez dituzte jeneralen bizitzak azalduko, lubakien izua eta masen sufrimendua baizik. Hori literaturan ez ezik, gizarte zientzietan ere islatzen da, adibidez, Annalen Eskolaren sorrerarekin.

***La Bataille d'Occident* eta *L'Ordre du jour* liburuetan garatzen duzun gai nagusietako bat eliteen arduragabekeria eta ustelkeria da. Baina oraindik ere desberdintasunak areagotu besterik ez dira egiten, eta ustelkeria herrialde askotan arazoa da. Ez al dugu ezer ikasi iraganaz?**
Ikasgai batzuk atera ditugu, baina aplikatzea da zailena. *La Bataille d'Occident*-en amaieran, Lehen Mundu Gerran gertatu ziren atentatu batzuk kontatzen ditut, eta horietako baten helburua John Pierpont Morgan bankari estatubatuarra zen [JP Morgan erakundearen fundatzailea]. Gerran handiki honek dirua utzi zien frantziarrei eta britainiarrei, baina baita bere aurkari alemaniarrei ere, gerra galdu ondoren hartutako zorra itzul zezaten. Gainera, armak saldu zituen gatazkak iraun

THOMAS MÜNTZER predikari iraultzailea laborariei hitz egiten irudikatu zuen Wilhelm Otto Pitthan margolariak. Éric Vuillardek idatzitako azken liburuan, ordea, XVI. mendeko iraultzetan parte hartu zutenak jatorri askotakoak zirela aditzera ematen da.

zuen bitartean. Hau da, lortu zuen dirua mugitzea beti bere eskuetan amaitzeko moduan. Garrantzitsua da horrelako finantzaketa-tramak ezagutzea. Batez ere Gerra Handiari buruzko ikuspegi lirikoak alde batera utzi behar dira.

Zure lanaren alderdi bereizgarrietako bat da kritikoa zarela gertakari historiko asko kontatzeko erabiltzen den tonu teatral eta lirikoarekin. Zergatik?
Hain zuzen ere, hori Lehen Mundu Gerratik ikasi genuen. Célineren *Gauaren muturrerainoko bidaia*-n ikusten dugu nola amaitzen den gerraren eta hura zuzentzen duten eliteen edozein ikuspegi teatral. Eleberri hau hasten da frontean bonbardaketa bat gertatzen den eszena batekin, eta buruzagi militar batek burua moztuta amaitzen du. XIX. mendearen hasierarako, Stendhalen literatura errealistarekin, gerra jada ez zen deskribatzen kronika heroikoen erregistroarekin, noble eta erregeen loria goraipatzeko. Baina Gerra Handiarekin eta lubakien esperientziarekin antzerki hau erabat desagertu zen.

Teatral samarra da, halaber, politikari askok nola ohartarazten duten orain ultraeskuinaren hazkundeaz, baina, aldi berean, ez duten gauza handirik egiten hazkunde hori errazten duten kausak zuzentzeko. Zer deritzozu ultraeskuinaren gorakadari?
Kezkatzen nau ideia errepresiboak ez dituztela soilik eskuin muturreko alderdiek defendatzen, klase politikoaren gainerakoak ere hala egiten baitu. 2015eko azaroan Frantzian larrialdi egoera ezartzeko erabakia, oinarrizko eskubideak traizionatu zituena, gobernu sozialista batek hartu zuen. Eskuin muturreko alderdi batzuk egotea ez da berritasuna, baina kezkagarriagoa iruditzen zait gainerako buruzagiak segurtasunarekin obsesionatuta egotea eta askatasun publikoak alde batera uztea. Hau gertatzen da kanpoko oposiziorik ere ez dagoelako. Herrialde guztiak eredu beraren pean bizi dira.

Gainera, oraingo egoeraren eta 1920 eta 1930eko hamarkaden artean alde nabarmena dago, sentimendu dramatikorik ez dagoelako. Kalean bota-hotsa entzuten ez dugunez, eta akelarre faxistarik ez dagoenez, ultraeskuindarren gorakada *light* samarra iruditzen zaigu. Egunero Munichko Konferentzia bat gertatuko balitz bezala da [1938ko goi-bilerari erreferentzia eginez, non frantziar eta britainiar gobernuek onartu zuten Alemania naziak txekiar Sudeteak anexionatzea]. Hala ere, gehien kezkatzen nauen alderdia aberastasunaren neurrigabeko kontzentrazioa da. Finantza-botereak eta alderdi ultraeskuindarrak guztiz bateragarriak dira. ●

YLENIA BENITO MORAN

BRONTË
LIBURU-DENDAREN
SORTZAILEA

Irakurleek hau bezalako dendak nahi dituzte, baina liburuaren industriak ez du irakurleengan pentsatzen”

“Batzuetan liburu-denda txikiei lotutako ideia erromantikoa daukagu, baina errealitatea ez da hain erromantikoa”. Liburuaren industrian, denda txikiak azken putza zergatik diren garbi azaldu digu Ylenia Benitok. Irungo Brontë liburu-denda asmoz beteta zabaldu zuen arren, abuztuaren 29an itxi behar izan ditu ateak, eta bilgune inportantea galdu dute literaturaren eta tertuliaren maitaleek. “Tristea da, jende guztiak bukatzen duelako gauza berdinak irakurtzen; horretara bideratzen gaituzte”.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ DANI BLANCO

Duela hiru urte, liburu-denda bat irekitzea erabaki zenuen. Nolako espazioa amestu zenuen?

Liburuak baino saltzen ez dituen liburu-denda nahi nuen, eta ez bestelakoekin batera liburuak saltzen dituen leku bat. Irakurleentzako espazioa izatea nahi nuen eta irakurle bezala zer gustatzen zait niri? Liburu-dendan sartu eta liburuak lasai hartu eta ukitzea, azalak begiratzea, lehenbiziko orrialdeak irakurri ahal izatea, edo azkenekoak! Eta jakina, bertan daudenekin liburuez hitz egitea. Hori bakarrik hau bezalako liburu dendetan egin dezakezu, supermerkatuan ere liburuak izango dituzulako, baina inoiz ez duzu liburuez hitz egiten entzungo. Aldi berean, txoko goxoa bilatu nuen, atsegina, irakurketa tailerrak antolatzeko, hitzaldiak eta halakoak.

Literatura ez da errentagarria, baina bide hori aukeratu zenuen.

Batzuetan liburu-denda txikiei lotutako ideia erromantikoa daukagu, baina errealitatea ez da hain erromantikoa, eta jakin banekien zaila izango zela, baina indartsu sentitzen nintzen. Gainera, ziur nengoen Irunen eta eskualdean irakurle asko zegoela, eta egon badaude. Arazoa da liburuaren industria ez dela irakurleetan oinarritzen, edo irakurle horiek ez dutela nahikoa indarrik sistema aldatzeko. Izan ere, industriak gune handiak mimatzen ditu: gune handiek –supermerkatu kate handi batek, adibidez– guk baino baliabide gehiago dituzte liburuak lortzeko –liburu bakoitza inbertsioa da nire kasuan–, baina gainera baldintza hobeagotan uzten dizkiete liburuak; ondorioz, aukera dute erosleei merkeago eskaintzeko. Azken finean, argitaletxe eta banatzaileek nahi dutena da liburuak egotea gune handietan, jende gehiago pasatzen delako horietatik, ez ordea irakurle gehiago. Irakurleak liburu dendetan daude, irakurleek hau bezalako dendak nahi dituzte, horregatik diot industriak ez duela irakurleengan pentsatzen. Berdina gertatzen da Amazon eta tankerakoekin: %5eko beherapena baldin badu Amazoneko liburuak, etxera doan bidaltzen badizu eta hala ere etekina lortzeko gai bada, atera kontuak zein baldintzatan utzi dioten liburu hori. Frantzian, liburu berriak liburu dendetan baino ezin dira saldu lehenengo asteetan, ez Internet bidez. Mugaren alde honetan berriz, argitaletxe batzuk hasi dira liburua atera eta saltokietara zabaldu aurretik, astebete lehenago, Interneten salgai jartzen, argitaletxeak berak zuzenean salduz.

Liburu-denda azkena da industriarentzat, dena da oztopo, eta tristea da, jende guztiak bukatzen duelako gauza berdinak irakurtzen; horretara bideratzen gaituzte: saltoki handietan liburu jakin batzuk baino ez ditugu aurkituko. Jendea etorri izan zait esanez "Julia Navarro estiloko liburu bat nahi dut", saltoki handi horietan Julia Navarro dutelako bista-bistan, baina nobela historikoaren barruan makina bat aukera dago Julia Navarroz gain.

Horri gehitu denda txikietan inbertsioa etengabea dela: apalak liburuz bete behar dira eta hori dirua da, diru asko. Jendeak ez du imajinatzen apal horietako bakoitza liburuz betetzea zenbat diru den.

Eta azkenean, proiektua ekonomikoki ezin eutsi, ixteko ordua iritsi da. Agurrean, Tinta Cómics, Tobacco Days, Nakama, Ménades, Zubieta, Donostia liburu-denda, Katakrak, Hontza eta Noski aipatu dituzu. "Zaindu itzazue", eskatu duzu. Liburu-denda horiek sentiarazi didate ez nagoela bakarrik, eta elkarrekin egiten dugula handiekiko indarra eta borroka, filosofia berean oinarritzen garelako. Filosofia hori zabaltzea eta gizarteratzea bera bada handiei aurre egiteko modua. Naizenaren zati asko ikusten ditut Brontën eta liburu-denda txiki horietan ere antzeman daiteke liburu-saltzaileen nortasuna. Denak txikiak gara, gauza berdin asko ditugu... baina oso ezberdinak gara. Ezberdin egiten gaituen horrek batzen gaitu, hain juxtu. Aldiz, Elkar guztiak igualak dira, Fnac guztiak igualak dira, Euskal Herrian eta Madrilen.

> "Liburu-denda independenteek sentiarazi didate ez nagoela bakarrik, eta elkarrekin egiten dugula handiekiko indarra eta borroka, filosofia berean oinarritzen garelako"

> "Nahi dudana sartu dut nire liburu-dendan, eta esaterako *Patria* momentuko best sellerra izan arren, hemen ez da hala izan"

Besteak beste, liburu-denda independente batek askatasuna ahalbidetzen duelako liburuen aukeraketan, ezta?

Hemen izan ditudan liburu guztiak nik aukeratu ditut, arrazoi batengatik edo bestearengatik. Guztiak ez ditut gustuko, baina nahi dudana sartu dut nire liburu-dendan, eta esaterako *Patria* momentuko best sellerra izan arren, hemen ez da hala izan. Horrek esan nahi du baita ere saltoki handi batean ez duzula deskubrituko ezer berririk, mundu guztiak irakurtzen dituen horiek baino ez dituzula aurkituko, eta hemen bestelako aukerak ere aurki ditzakezula. Gertatu zait liburu bat komentatzen aritu eta beste irakurzale batek solasaldia entzun eta liburu hori eramatea. Edo Brontë ahizpak eta Jane Austen nire gomendioengatik ezagutu ditu hainbatek, liburu-denda honetan autore horiek maite ditugulako. Hemen, mundu guztiak nahi du dendariarekin hitz egin,

DIRUA. "Denda txikietan inbertsioa etengabea da; jendeak ez du imajinatzen apal bakoitza liburuz betetzea zenbat diru den".

gomendatzeko eskatu ez didatenean ere, beti galdetu didate aukeratu duten liburua irakurri al dudan eta ea zer iruditu zaidan. Hori ez zaizu Amazonen gertatuko, berdin dio zein algoritmo darabiltzan.

Denda itxi eta guztiak triste. Baina erosten al dute herritarrek denda txikietan?

Jendeak planteatzen du herriko denda txikietan erostea esfortzua bailitzan, baina ez da esfortzua, herritarrak duen aukerarik onena baizik, erosoa eta herrian bertan. Beharbada ez dugu asmatu mezua ongi helarazten. Denda itxiko dudala iragarri eta hainbatek esan dit: "Behin baino gehiagotan joan nahi izan dut, baina beti batetik bestera presaka, ez dut ahalegina egin...". Ez, ez da ahalegina, aprobetxatu ez duzun aukera da.

Hala ere, amaiera gozoa izan duzu.

Ez nuen azken txanpan halako harrera espero; ezagutzen nituen irakurle guztiak etorri dira liburuak erostera, baina baita kanpotik ere, Donostiatik, Iruñetik, Gasteiztik... eta pozik nago, horri esker lortuko dudalako zorrik gabe ixtea, eta gutxienez ez dut haserre bukatuko. Txantxetan nioen ateak ixterakoan apaletako egurra baino ez nuela kaxetan sartu nahi, ez libururik, eta kasik lortuko dut hala izatea.

Beraz haserre ez duzu bukatuko, baina haserre ikusi izan zaitugu instituzioekin, tartean Irungo Udalarekin, beste ekimen batzuk baimendu arren Liburuaren Eguna ez duelako baimendu, pandemia aitzakia hartuta. Kultura oso beharrezkoa dela diote erakundeek, baina gero ez dute kulturan benetako interesik?

Ez dakit, nik beti horma bat aurkitu dut aurrean, proposamen batekin joan eta beti zaila eta nekeza da aurrera atera ahal izatea, eta ezin du hain zaila izan. Dirua egon badago instituzioetan, baina dirua jartzeko beti dira trabak; interesa balego, dirua jarriko lukete. Horrez gain, erakundeetako kultura arloko kudeatzaileek kulturgileekin batera egin beharko lituzkete planak, eta ez dute hala egiten. Liburu-denda baten beharrei buruz liburu-saltzaileak daki, baina kultur planteamenduak egiteko ez bagaituzte kontuan hartzen, gero dena zaila iruditu zaie, noski. Kulturgileak ezin gara arazo izan kultura kudeatzen dutenentzat, euren abiapuntua izan beharko litzateke gurekin batera aritzea eta gure beharrei buruz galdetzea.

Irungo Udalaren kasua aipatu didazu eta lotuta dago horrekin. Liburuaren Eguna uztailean izan zen eta nik orduan behar nuen Liburuaren Eguna, ez udazkenean, baina udal gobernuak erabaki zuen Irunen azoka udazkenean egingo dela, ustez. Liburu-denda independenteak bi gara Irunen –Tinta Cómics, komikietan zentratua, eta Brontë, orokorra–, biek azoka uztailean egin nahi genuen, baina Udalak aldebakarrez erabaki du udazkenean egingo dela. Horrek, adibidez, niretzat esan nahi du liburuei beherapena egitea apirilaren 23an –Liburuaren Eguna delako–, uztailaren 23an –Liburuaren Egun izendatu zelako berriz ere– eta udazkeneko azoka horretan, Irungo Udalak orduan nahi duelako. Beherapen horiek beti dira liburu-dendaren kontura.

Beste muturrean daude "Brontë Lagunak".

Bai, Brontë Lagunak dira Brontë zaindu duten horiek guztiak, liburu-denda gomendatu dutenak, etorri eta proposamenak egin dituztenak, hemendik pasa diren irakurleak...

Liburu-denda independente orokor bakarra galdu du Irunek. Galera handia da.

Bai, eta ni neu kezkatuta nago gaiarekin, Irundik kanpora joan beharko dudalako gustuko dudan liburu-denda batera joateko, eta horrek pena handia ematen dit. Beharbada, hiriko bakarra izatea ere txarrerako izan da, liburu-denda independente gehiago izan bagina hirian bertan egingo genuelako indarra elkarrekin eta agian mugimendu gehiago sortuko genuelako herritarren artean, instituzioetan...

Dena den, herri eta hiri asko liburu-dendarik gabe geratu dira, eta esanguratsua da. Kulturaz gozatzera hiriburura joateko gero eta ohitura handiagoa dugu eta gure herri eta eskualdeetako kultur agenda zaindu beharko genuke, dena ez dadin hiri handietan kontzentratu.

> "Jendeak planteatzen du herriko denda txikietan erostea esfortzua bailitzan, baina ez da esfortzua, herritarrak duen aukerarik onena baizik"

> "Kulturgileak ezin gara arazo izan kultura kudeatzen dutenentzat, euren abiapuntua izan beharko litzateke gurekin batera aritzea"

Liburu aurkezpenak, hitzaldiak, tertuliak, irakurle kluba... ohiko izan dira Brontën. Horrelako espazio gehiagoren beharra dugu?

Bai, erabat, eta faltan botako ditut elkartzeko aukera horiek. Lagun batek dio liburu-dendan egiten direla herritarrak, eztabaida oso aberatsak izan ditugulako hemen, eta batzuetan liburua debateen abiapuntua baino ez da izan.

Zein da hiru urte hauetako balorazioa?

Oso positiboa, ez naizelako bakarrik sentitu, eta baieztatu ahal izan dudalako irakurle asko dagoela. Antolatutako ekimenek ere momentu bikainak oparitu dizkidate. Irakurle kluba beteta egon da hasieratik. Beñat Sarasola eguraldi oneko igande goiz batean gonbidatu eta jende ugari datorrela ikustea pozgarria izan da. Baita Mikel Iturria Javier Ortizen liburua aurkeztera hurbildu eta jende pila bat elkartzea ere, tartean Donostiatik Irunera etorriak. Ezusteko atsegina da, normalean Irundik Donostiara goazelako, ez alderantziz. Mertxe Tranche historialariak Jane Austeni buruz eman zuen hitzaldian ikusleak ez ziren dendan sartzen! Halakoek ilusioa egiten dute, eta pentsatzen duzu, "gu ere bagara kulturaren leku". Idazleak gerturatzen direla eta denda hau inporta zaiela ikustea ere polita izan da: Eider Rodriguez, Lucia Baskaran, Danele Sarriugarte... Azken bolada gogorra izan da, koronabirusak amaierako kolpea eman didalako, baina momentu horiek guztiak gordeko ditut gogoan.

Liburu bat gomendatuko al diguzu?

Azkenaldian irakurri ditudanetatik, Karmele Jaioren *Aitaren etxea* izugarri gustatu zait. Eta hiru urte hauetan gehien gomendatu dudan liburua izan da *Yo le pinté el bigote a Stalin*, Erika Riemann alemaniarraren liburua, gaztelaniara itzulia. Oso gomendagarria. ●

LIBURUA

Zauriak solas

DANI BLANCO

SUSMAEZINAK
ITXARO BORDA
ALBERDANIA, 2019

AMAIA ALVAREZ URIA

Itxaro Bordak argitaratu duen azkenaurreko eleberrian fikziozko Erautsi komando ibiltariaren gorabeherak ditugu. Ipar Euskal Herrian bizi eta atentatuak Hego Euskal Herrian eta Espainian egiten dituzte Felixek, Marianek, Patxik eta Pierrek. Susmaezinak dira egunerokoan, denbora luzez bizitza bikoitza eraman dutelako.

Idazle honek lehenago ere idatzi du "euskal gatazka"-ri buruz: *Hiruko* (2003) lanean narrazioa, saiakera eta elkarrizketa filosofikoa erabili zituen; *Odolak su gabe diraki* (2017) lanean antzerkia; eta eleberria heldu zaigu lan honekin batera.

Lehen eta azken kapituluetako pertsonaiak "Carmen eta biok" dira. Protagonistak, (Amaia Ezpeldoik?), bere lagun bilbotarrari esaten dio gaztetan ezagutu zuen etakide bat kaleratu berri dela (Felix), eta bere istorioa kontatu nahi duela: "Belaunaldi baten izenean, iragan dorpe horrekiko aske senditzeko (...) Nobela beltza, egiazko istorioa kontatzeko".

Felix pertsonaiak Atxagaren *Gizona bere bakardadean* (1993) laneko protagonista ekarri zidan burura. Etakide gizonezkoa da pertsonaia nagusia bietan, baina bigarren honetan, gogoetez gain, gorputza eta desioa ere oso presente daude. Batetik, duela 40 urteko matxismoa agertzen da, emakume protagonista gehienak amak, emazteak eta prostitutak dira, eta komandoko Marian kide/gizon moduan tratatzen dute ekintzetan eta garbiketa eta otorduen lana egokitzen zaio tarteka. Bestetik, sexualki oso aktiboak dira komandokide guztiak: "bizitza apur bat, bestela eguneroko militantzian herioarekin jolasten zirelako".

ETAk 2010ean "ekintza armatuzko erasoak" bertan behera uzten zituela eta 2017an behin betiko armagabetzea iragarri eta gauzatu zuenetik, bere jardunari buruzko historia hurbila jasotzeko saiakerak izan dira. Bordak egindakoa gomendagarria da, badu alderdi onik, ahots eta ikuspegi desberdinak jaso nahi izatea, kasu, baina diskurtso zaharrak errepikatzeko arriskua ere hartu du tarteka. Izan ere, zenbat distantzia behar da norberak bizitako egoera lazgarriez berba egiteko? 80 urte pasa dira Gerra Zibiletik eta oraindik ari dira agertzen testigantzak tantaka. 40 urte dira 80ko hamarkadako ETAren berunezko urteetatik. Nola lortu minaz hitz egitea "bestela"? ●

MUSIKA

Garraztasunaren berrirakurketa

94/20

SEÑOR NO

BANG RECORDS

IKER BARANDIARAN

Donostiako Señor No talde beteranoa ezaguna da aspalditik bai Euskal Herrian, baita kanpoan ere, betidanik zirkuitu komertzialetik kanpo egon bada ere. Taldea 90eko hamarkada hasieran sortu zuten La Perreran aritutako hainbat lagunek. Punk-rock eta rock-and-roll zikinenaren eszenan zizelkatutako izena da kaleratutako diskoengatik eta, batez ere, eskainitako zuzeneko beroengatik.

Taldekideek beti beren kasa egin dute lan korrontearen kontra, eta lokomotora batek baino indar handiagoa duen Xabi Garrek gidatuta, ez dute inoiz oztopoen aurrean atzera egin, ezta kontzertu eskasik eskaini ere. Hasierako ilusioa eta kemena mantentzen dute, eta orain, kulturak hain garai zailak bizi dituen honetan ere, aurrera egitea erabaki dute. Azken 25 urte hauetan kaleratutako hainbat single –kanta puskak– berriro grabatu eta bestelako ukitua eman diete. Emaitza haien bidelagun eta anai izandako Roy Loneyren omenez Hendrik Röverren estudioan grabatutako bilduma dotorea da.

Etapa honetan Joseba B. Lenoir musikari handia batu zaie hirugarren gitarra jotzera, eta emaitza are gehiago aberastea lortu du. Bertan badira *Masacrante*, *Perra*, *Está bien* eta *Mira mi dedo*-ren moduko klasiko garratz eta bizi-biziak, haien zuzenekoetan inoiz falta ez direnak, eta irakurketa berriz baina tempo zabalagoz landutakoak. Hala ere, taldeak betiko osagaiak ditu: Stooges, MC5, talde australiar bortitzenak, Union Carbide Productions, TSOOL eta wah-wah barra -barra.

Baina, horiez gain, badira bestelako sorpresa atseginak ere: *La ruta interior*-ek gogoz edaten du The Soundtrack Of Our Lives-en misteriotik sitar eta guzti. *Off*-ek tempo erdiari eusten dio rock-and-roll eroenean amildu arte. *Algo que recordar* balada rockeroa da, indartsua eta borobila. *A todas luces*-ek malenkonia eta rock-and-roll basatia batzen ditu. *La droga* da boskotearen oinarri den Stooges-en deiadarra: azkarra, bortitza, rockeroa, eroa. Eta, azkenik, *Meando en la niebla*-k beste kutsu bat dauka: tangoaren oinarritik abiatuta pieza rockero lasaiagoa da. ●

Literaturaren doinuan

DABI PIEDRA OLGA RUIZ / BIDEBARRIETA

BERTSO SAIO LITERARIOA

NOR: Karmele Jaio, Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga.
NON: Bilboko Bidebarrieta liburutegian.
NOIZ: Abuztuaren 19an.

Sormenaren lurraldea hedatzeko eta kultur adierazpideen arteko mugak lausotzeko joera agerikoa da gaur egun, eta horren erakusgarri dira literatura eta bertsolaritza uztartzen dituzten saioak. Idazleak eta bertsolariak oholtzan elkarrekin ikustea publikoaren gustokoa da, nonbait. Alabaina, Karmele Jaiok aitortu zuen lehenengo aldia zuela Bilboko Bidebarrieta Kulturguneak eskainitako hura, eta lehenengo aldiek adin batetik gora duten bakantasunaren jakitun zela.

Bertsolariei gaiak jartzeko lehenengo aldi hartan eskarmentudun bidelagunak jarri zizkioten Jaiori: Maialen Lujanbio eta Unai Iturriaga. Esperimentuak emaitza ona eman zuen, bertsolariek kanturako zirrikitu ugari aurkitu baitzituzten Jaiok trebetasunez jositako planean. Idazleak irakurritako aipu literarioek markatu zuten bidea, umoretik kezka esistentzialetara eta munduaren gordintasunetik fantasiara ia oharkabean salto eginez.

Literaturak zer leku duen gaur egungo munduan, lehenago beste askok erantzun nahi izan duen galdera, aurrez aurre aurkitu zuten Iturriagak eta Lujanbiok lehenengo ofizioan. Jaiok egina zien oharra: zalantza nagusi den garaiotan, jendeak erantzun zehatzak, erabatekoak nahi ditu; baina literaturak erantzunak baino galdera gehiago ematen ditu.

Ondoren, Olga Tokarczuk eta Milan Kunderaren aipu bana lagun, hizkuntza boteretsuez eta txikiez gogoeta egin zuten bertsolariek. Umoretik jo zuten, gaia ere ohiko zortziko txikiko ofizioetan bezala planteatuta eman zielako Jaiok. Lujanbio euskal idazle militanteari erdaraz idazteko eskaintza mamitsua egin diote, eta, bere printzipioen kontra badoa ere, dirutza horrek ekarriko dien lasaitasunak itsutu du Iturriaga senarra: "Alabaren ingelesa honek ordaintzen du", amaitu zuen bertso bat. Lujanbioren arrazoi zorrotzek konbentzitu egin zuten azkenean, militante bi "epikarik gabe" ezin direla bizi onartu baitzuen.

Literaturak, ordea, bihurguneak eskaintzen dizkigu argiuneak baino sarriago, eta Jaiok berehala eraman zituen bertsolariak gai ilunagoetara. Lehenengo, Juan Carlos Onettiren amodiozko jokabide zalantzagarriak oinarri, hilurren jarri zuen Iturriaga, gaztetan abandonatu zuen emakumea ikusi nahian. Ondoren, bortxatua izatearen ikara jarri zuen Jaiok mahai gainean, Lujanbio neska eta mutil gazte banaren amaren azalean jarrita. Oreka zaileko gaiak biak, baina bertsolariek ondo eutsi zioten. Azken puntuan bota zuen egia biribila Lujanbiok: "Bat arduratsu den mundu baten, besteak beldurrik ez du".

Nostalgiak eta betiko joandako garaiek ere kuku bat baino gehiago egin zuten saioan. Guraso hil berrien etxean txikitako oroitzapenak begiratzen ari diren neba-arreben paperean, gazte garaiko erreferenteekin jolastu ziren bertsolariak, bakoitza doinu batean. Maialen Lujanbiok, nork bestela, bertso batean kateatu zituen bandera more, hardcore eta *in illo tempore* errimak. Itxura eskaseko aspaldiko adiskide ahaztua ikusi duen enpresaburuaren ahotik kantatu zuen Iturriagak gero, bertsoaldi hunkigarri batean.

Literaturatik ernetako zalantzei erantzuten jakin zuten Lujanbiok eta Iturriagak, bertsotan nekez zapaltzen diren lurraldeetan sartzeko Karmele Jaiok egin zien gonbidapenari segika. Pandemiak kulturgintzari eragindako estualdian, arnasgune izan zen Bidebarrieta. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Gurutzegrama



EZKER-ESKUIN:

1. Nekazari. / Heure. **2.** Konforme. / Hodeietatik erortzen den ura. **3.** Lantegia. **4.** Adintsua. **5.** Kirol mota, borroka japoniarraren modalitatea. / Erretzen zail dena. **6.** Ene! Oi! / Saioa, esperimentua. **7.** Zintzotasun. / Errealitatea simulatuz, ordenagailuan sortua dena. **8.** Bolboraren leherketa-indarraz baliatzen den arma. / Eskuz erabili.

GOITIK BEHERA:

1. Kontserbak edukitzeko, latorriz egindako ontzia. / Begirada (alderantziz). **2.** Lau urtaroetatik bigarrena. / Patu, halabehar. **3.** **Nafarroako udalerria (argazkian)**. **4.** Islamari dagokiona. **5.** Aleak haustu. / Samarioaren ikurra. **6.** Abagune, aukera. / Lama. **7.** Hurbilean. **8.** Inprimatu. **9.** Nori atzizkia. / Euskal Herriko herrialdea. **10.** Eusko Alderdi Jeltzalea. / Ihardun. **11.** Geure. **12.** Kontrakotasuna adierazteko aurrizkia. **13.** Helburua, xedea. **14.** Norentzat atzizkia. **15.** Arin, azkar.

Sudokua

ERRAZA

		5	7			4	3	
3	1		2		5			
	7							
	5	6			8			
9	4						8	7
			3			6	9	
							2	
			8		2		1	5
	9	1			6	8		

ZAILA

1	5			7			3	
		9		5		1		
			2		1	4		
3				2	8		4	
			7		5			
	4		6	9				1
		6	8		2			
		4		1		5		
	1			6			8	3

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Kasa, kontura	KABUZ
Osagai bakarra duena	
Txartela	
Baizik	
Bakoitzak bost	
Sorbalda, bizkarra	
Urrin	
Sama, lepoa	
Asiako estatua	
Haur txikia	
Nereida	
Azken proba	
Ur gezako arraina	LOINA

EBAZPENAK

ESKER-ESKUIN: . LUGIN, HIRE, 2. ADOS, EURIA, 3. TAILERRA, 4. ZAHARRA, 5. SUMO, ERREGAITZ, 6. AIEI, SAIAKUNTZA, 7. ONTASUN, BIRTUAL, 8. SUARMA, MANEIATU.

GOITIK BEHERA: 1. LATA, AOS, 2. UDA, SINU, 3. GOIZUETA, 4. ISLAMIAR, 5. EHO, SM, 6. ERA, SUA, 7. HURREAN, 8. IRARRI, 9. RI, ARABA, 10. EAJ, EKIN, 11. GURE, 12. ANTI, 13. ITUA, 14. TZAT, 15. ZALU.

ANAGRAMAK

KABUZ
BAKUN
BONUA
BAINO
BOSNA
SOINA
USAIN
IDUNA
INDIA
NINIA
NINFA
FINAL
LOINA

ATSOTZITZA

BESTEREN ESKUEKIN EZ DA UZTARIK BILTZEN.

ERRAZA

6	2	5	7	1	9	4	3	8
3	1	4	2	8	5	7	6	9
8	7	9	4	6	3	1	5	2
1	5	6	9	7	8	2	4	3
9	4	3	6	2	1	5	8	7
7	8	2	3	5	4	6	9	1
5	3	8	1	4	7	9	2	6
4	6	7	8	9	2	3	1	5
2	9	1	5	3	6	8	7	4

ZAILA

9	1	2	5	6	4	7	8	3
8	3	4	9	1	7	5	6	2
5	7	6	8	3	2	9	1	4
2	4	7	6	9	3	8	5	1
6	8	1	7	4	5	3	2	9
3	9	5	1	2	8	6	4	7
7	6	3	2	8	1	4	9	5
4	2	9	3	5	6	1	7	8
1	5	8	4	7	9	2	3	6

Maddi Ane Txoperena Iribarren

LEHEN ELEBERRIA BESAPEAN

AHOA ETA ESKUA, ETENGABEKO DANTZAN

Zaila da irribarrerik gabe ikustea Maddi Ane Txoperena Iribarren. Ahoan bilorik gabe mintzo da, baina lasai. Patxadaz, argiki. Joan den urteko taldekako Xilabako irabazle, bertso mundura berriz hurbildu izana pozik bizi du. "Ongi pasatzeko asmoz animatu nintzen. Presiopean ez nuen aritu nahi. Eta azkenean irabazi genuen. Uste dut hori izan zela garaipenaren gakoa". Ahoa ez ezik, eskua dantzan jartzen du egunero *Berria* egunkarian. Ez du baztertzen beste eleberri baten idazketan murgiltzea. Ideiak ez ditu eskas.

"Neskame joandako emazteek bizitakoari balioa eta ikusgarritasuna eman nahi izan diot"

Ene baitan bizi da (Elkar, 2020) eleberria kaleratu berri du Maddi Ane Txoperena Iribarrenek (1994, Hendaia). Baztan eta Bortziriak eskualdeetako hainbat emakumek 40ko hamarkadatik 70eko hamarkada bitartean bizi izan zutena azaleratu eta hein batean aitortu nahi izan du. Amatxiren bizipenak giltzarri osatu du nobela. Nafartarra eta Lapurtera nahasi ditu, Donibane Lohizunen eta Beran kokatu baitu eleberria.

AITZIBER ZAPIRAIN **IRANTZU PASTOR**

Argitu dezagun Maddi Ane, argitu behar baldin bada behintzat. Nongoa zara?

Ni Hendaian bizi izan naiz unibertsitatera joan arte. Bertako ikastolan, Ziburuko kolegioan eta Baionako Bernat Etxepare lizeoan ibili nintzen, Lapurdiko edo Iparraldeko euskaldun askoren pare. Ondoren Gasteizera joan nintzen goi mailako ikasketak egitera, eta uste dut geroztik ez naizela Hendaian bizi izan. Joaten naiz bisitan gurasoen etxera, baina bizitzera ez.

Zerk eraman zintuen Lesakara?

Aita lesakarra da, eta baita bere familia guztia ere. Ttikitatik izan dugu ohitura Lesakara joateko. Igandero batzen ginen familia guztia bazkaltzeko, ongi pasatzeko, eta garai hartako oroitzapen oso onak ditut. Esango nuke Lesaka oso herri kaletarra dela, eta niri betidanik gustatu izan zait hori. Hendaian ohiturak bestelakoak dira. Etxekoiagoak esango nuke. Lagunekin ere, beren etxean edo gurean geratzen ginen. Kalean gutti. Uste dut, hori bera dela Lesakatik asko erakartzen ninduena eta nauena. Askatasuna ematen zidan. Bizitzeko beste modu bat da.

Zeinen amorragarria den lapurtarra izanik, euskaldunen aitzinean euskalduntasuna defendatu behar izatea, ezta?

Behin baino gehiagotan haserretu naiz, parrandan adibidez. Nongoa naizen galdetu, "hendaiarra" erantzun eta "frantsesa orduan!" esan izan didatenean. Gazteagotan, Zaldibiara joaten nintzen sarri lagun batekin, bertakoa baita bere aita. Bestetara joaten ginen, parrandara. Eta hamaika halako bizi izan genituen. "Orduan zuek espainolak" esaten genien. Eta sekulako iraina bailitzan hartzen zuten. Oraindik ere, euskaldun bati espainol deitzea iseka bezala hartzen da, eta zuri frantses esaten dizute eta ez da deus pasatzen. Eta

"HEMEN INGURUKO EMAKUME ASKOK ETA ASKOK BIZI EDO JASAN BEHAR IZAN ZUTENA AZALERATU NAHI IZAN DUT. ETXETIK URRUN EGON ZIREN HAINBAT URTEZ, INORK GARRANTZIRIK ETA ONARPENIK EMAN EZ DIEN LANAK EGITEN; ZAINTZA LANETAN, ALEGIA".

hori oso herri euskaldunetan gertatzen da. Lesakan ere entzun izan ditut halakoak, baina uste dut jada ulertu dutela. Espero dut. Oso nekeza da. Eta tristea.

Nire baitan bizi da **du izenburu kaleratu berri duzun eleberriak. Nor bizi da zure baitan?**

Hori da topatu beharrekoa... Gazteluma saria irabazi nuen joan den urtean, eta urte bateko epea eman zidan eleberria osatu eta amaitzeko. Horretan ibili naiz epe batean, eta konfinamendu garai berezian atera zen labetik. Marie gaztea eta haren amatxiren arteko harremana lantzen da. 40ko hamarkadatik eta 1970eko hamarkada artean, Baztan eta Bortzirietako emazte aunitz neskame edo neskato lanetan aritzera joan ziren Iparraldera, baita Frantziara ere. Nik ttikitatik entzun izan ditut halako istorioak etxean, gure amatxi ere hala ibili baitzen. Aspaldian gaiari heldu eta idazteko ideia otu zitzaidan. Zerbait hasia nuen, baina ez nuen aurrera jotzen. Beraz sariketa bultzada izan da horretarako. Bi hari ditu nobelak. Bata, Donibaneko Marie neska gaztearena. Parisen bizi da eta Berara joaten da amatxiren etxera uda pasatzera. Ikasketa amaierako lan bat egin behar du eta gaia eskas zaio. Amatxiren bizipenak deskubritzen ditu eta hortik tiraka hasten da. Beste haria, amatxi beraren historia da. Haren neskame garaietako bizipenak.

Zer du fikziotik eta zer du errealetik?

Oinarria egiazkoa da, gaia eta muina errealak dira. Hori da abiapuntua. Pertsonaiak eta gertakari gehienak, ordea, neuk asmatuak dira. Zati laburrak egin nahi izan ditut, kapitulu bakoitzari izaera bat emanez. Eta hala egiteak, idazketa prozesuan lagundu egin nau. Azken batean, hemen inguruko emakume askok eta askok bizi edo jasan behar izan zutena azaleratu nahi izan dut. Etxetik urrun egon ziren hainbat urtez, inork garrantzirik eta onarpenik eman ez dien lanak egiten; zaintza lanetan, alegia. Oso ezagunak dira hemen inguruko kontrabando gaiak, edota Ameriketara joandakoen bizipenak, beti ere nagusiki gizonezkoenak. Emakumeak ere izan ziren mugalariak! Emakume hauen historiak ez ordea. Nik, neskame joandako emazteek bizitakoari balioa eta ikusgarritasuna eman nahi izan diot eleberriaren bidez.

Amatxik irakurri du?

Ez da asko hitz egitekoa... Oso izaera euskaldunekoa da, kar-kar-kar!

Aspaldian esan nion bere bizipenetan oinarrituriko eleberri bat idazten ari nintzela, baina ez zidan deus erran. Pentsatzen dut ilusioa egin diola. Hasi omen da irakurtzen, ea amaitzen duen.

Zein sentsazio izan duzu amaitzerakoan?

Hustuketa edo erditze sentsazioa izan dut. Oso ederra. Asko ikasi dut, eta besterik eginen banu, gogoa ukan badudalako, uste dut ez nukeela berdin idatziko edo berdin eginen. Baina tira, ondorengoan ikusi beharko da, heltzen baldin bada, kar-kar! ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Haurrak eskolara poltsa hermetikoetan sartuta bidaltzeko eskatu du Jaurlaritzak, ez dezaten elkar kutsatu

Nekane Murga Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuaren arabera, haurrak eskolara plastikozko poltsetan sartuta bidaliz gero, ikasturte berrian COVID-19az kutsatzeko arriskua %95 gutxituko da. Joan den astean EAEko Gobernuak aurkeztutako protokoloa neurri honekin osatuko da eta Europan aitzindari izan nahi du. "Poltsak erabat hermetikoak izatea da gakoa", Murgak azaldu duenez. "Horrez gain, plastiko gardenez eginak izatea iruditzen zaigu egokiena, ikasleek arbela behar bezala ikus dezaten". Kazetariek agertutako zalantzei erantzunez, Murgak esan du badakitela haur batzuk poltsa barruan ito daitezkeela. "Esan nuen abuztu hasieran, egoera honetan jendea hil egiten da, zer egingo zaio", gaineratu du. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Nafarroa, erre & suma

Eskubide guztiak denontzat!

Arrantzale batek bi kilo eta erdiko FFP2 maskara arrantzatu du Bidasoan

Justino Amundarainentzat egun historikoa izan zen joan den ostegunekoa: "Arratsalde osoa neraman gauza handirik harrapatu gabe eta erabakia nuen azkeneko Roslia erre, atxamartak jaso eta etxera joatea". Zerbaitek kainaberaren muturra okertu zuen arte. "Nola tiratzen zuen ikusi eta segituan jakin nuen hura txol handia izango zela", esplikatu dio Beranduegiri. Tiraka bi ordu eta erdi pasa ondoren, bere indarren azken mugara iritsita, etsitzeko zorian zegoenean, azkeneko tiraldi desesperatu batekin lortu zuen amuari kosk egin ziona uretatik ateratzea: bi kilo eta erdiko FFP2 maskara erraldoia. "Tamaina honetakoak politikoek-eta erabiliko dituzte", esan du txantxetan. Amundarain printzipio irmoak dituen arrantzalea da ordea eta, behin harrapatu berri zuen piezarekin argazkia aterata, berriz ere ibaira bota du: "Gauzak aurkitu ditugun bezala uzten saiatu behar dugu naturan, badakizu". ●

2021a urteurren borobil ugarirekin
dator: 500 urte Noaingo batailak,
150 urte Parisko Komunak,
100 urte Sobietar Batasunak M8
emakumearen egun izendatu zuela,
25 urte Itoiz urtegiko kableak moztu
zitutela edo Hondarribiko alardean
emakumeak lehen aldiz atera zirela,
20 urte Al Qaedak AEBetako Dorre
Bikien aurkakoko atenatuarekin
mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz,
egunero efemeride bat
eskainiko dizugu datorren urtean ere,
burujabeak garenez,
historia guk ere idatz dezagun.

AZOKA.ARGIA.EUS
943 37 15 45

10€

+4€ BIDALKETA GASTUAK

Eskuratu
ARGIA **EGUTEGIA**

POSTIGO

Garai baten kronika

1979.09.01 ► Istiluak Donostian Iñaki Quijeraren heriotzarengatik

Fernando Postigo Argazki Bilduma

Erakusketa
2020.07.30–2020.11.01

San Telmo Museoa

ANTOLATZAILEAK

STM San Telmo Museoa | Donostia San Sebastián | donostia kultura

ERAKUNDE BABESLEAK

Eusko Jaurlaritza Gobierno Vasco | Gipuzkoako Foru Aldundia | Grain Kultura

PATRONO PRIBATUAK

eitb | kutxa | El Diario Vasco

San Telmo Museoa
Zuloaga Plaza, 1
20003 Donostia/San Sebastián
www.santelmomuseoa.eus
@santelmomuseoa
#STMfernandopostigo